

BIZIMUNDUA

ITZIAR URIARTE CRESPO

16 urtetik gora

Idazlea: Itziar Uriarte Crespo

Orain dela zortzi urte baino gehiago, boluntario lanetan atzerrian hasi zenetik, Itziar Uriarte Crespo ez da inoiz bere koadernotik urrundu. Izakia ez balitz, txoria izango litzateke. Izan ere, mundua zeharkatu eta leihoetan gelditzea gustatzen zaio; ondoren, txio-txio bere istorio guztiak kontatzeko.

1990. urtean jaio zen, Gasteizen. Ogibidez irakasle eta psikopedagogoa da. Hezkuntza mundua aldatzeko tresnarik garrantzitsuena dela sinesten du. Eskola zein mundu inklusiboaren aldekoa da, proiektu hau horren adierazgarria delarik.

itziaruricres@gmail.com

Ilustratzailea: Arantxa Vinardell Vázquez

Arantxa Vinardell Vázquez Marokon boluntario geundela ezagutu nuen eta laster maitemindu nintzen bere izaeraz, kemenaz eta, noski, irudikatzeko moduez. Bizimundua proiektua errealitate bihurtuko zela jakin bezain pronto, deitu nuen eta amets hau betetze bidean lagundu nahi zidan galdetu nion. Erantzuna baiezkoa izan zen. Mila esker.

1984. urtean jaio zen, Sevillan. Arte Ederrak ikasi zuen, baita arteterapia master bat ere. Egun, arteterapia saioak ematen ditu eta marrazten jarraitzen du, nola ez. Artea barruan dauka eta ateratzen utzi behar du. *Hola* liburuaren sortzailea da.

@arantxavinardell

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	4
Zure ez izana.....	7
Maitasun pittin bat.....	16
Aisha.....	25
Joandu Kimani.....	79
Lehoia eta estralurtarra.....	99
Zintzilik.....	118

HITZAURREA

Antzina, hegaztien hegaldiak aztertu ohi ziren patua iragartzeko. Iragarpenetan, bi txori mota bereizten ziren: onak eta txarrak. Txori onak zorionaren seinale ziren, eta txarrak, aldiz, zoritxarraren seinale. Hortik datoz, antza, zoriona eta zoritxarra hitzak.

Zorionekoa zu, liburu hau esku artean duzun hori, Itziar txori ona dugu eta. Haren hego arinekin lurraldez lurralde bidaiatu da eta, honako ipuin sorta honetan, bidaietan bildutako istorioak dakarzkigu.

Munduko sei txoko bisitatu ditu txoritxoak, eta bertan sentitutakoak orrialdeotan plazaratu ditu. Nolabaitean, mundua pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko sei modu oparitu nahi izan dizkigu Itziarrek. Sei

bizimodu, sei *bizimundu*.

Ipuinetako pertsonaiak direna aske izateko borrokan egongo dira, egoera lazgarrietan batzuetan eta itxaropentsu besteetan. Itziar begirada feministaz arituko zaigu liburuan zehar, pertsonaien oinetakoetan betiere.

Argi dago Itziarren bularra gorria eta puztua dela, txantxangorri bizia baita. Zipitriak hala zioen: «Txori bakoitzak bere kantaera, herri bakoitzak bere hizkera eta euskaldunok euskera». Eta Itziar kantaera anitzez baliatu da. Istorioak ez ditu soilik geurean, euskaraz, abestu, zeinu-hizkuntzaz zein braillez ere modu digitalean disfrutatzeko aukera luzatu digu.

Lan honek ez luke izaterik idazlearen bidelagun izandako GGKEen lanik gabe. Hori dela eta, liburuaren

irabazien %40a *Chazon, Kulli, Fisios Mundi* eta *IPI Cooperació* elkartetara joango da. Hara, horiek ere txori onak!

Abiatu, bada, hegaldi honetan. Eta gozatu barne sentimenduen txorrotxio esnarazleez!

Miren Uriarte Crespo

Zure ez izana

Zu ez zara izan, baina izan behar zinen eta hurrengoia izango zen zure istorioa.

Familia txiroan, hegoaldeko Indian jaio behar zinen. Lau ahizpa-neba izan behar zenituen, Amrita gazteena, bi urteko ahizpa bakarra; eta hiru neba, Balarama, Devdan eta Gotmen, lau, bost eta zazpi urtekoak, hurrenez hurren. Ama Punita eta aita Kunal izenekoak. Haien guztien ogibideak nekazaritza, abeltzaintza eta lapurreta ziren.

Familia-kideak arruntzat har zitezkeen, jateko eta bizirauteko behar zuten guztia egiten zuten pertsonak, herriko gainontzeko gehienen antzera. Lurretik, inguruko zelaietatik edo aintzira zikinetik atera zitezkeen jakiak *sariak* ziren haientzat. Hori nahikoa ez zenean, hirira jo behar zuten trikimailuen bidez pare bat txanpon edo haragi

puskaren bat lortzeko. Ez zuten handik haratago zegoen ezer ezagutzen, ezta ezagutu nahi ere. Hori zen haien bizi-tza eta ez zegoen «zergatik» edo «zertarako» galdetu beharrik; zergatik edo zertarako denbora galdu horretan?

Testuingurua egokia izanda ala ez, zure eguneroko bizi-tza alai-a izan behar zen; haurtzaroan zehar, behintzat. Ibiltzen hasi bezain laster, ur bila joango zinen putzura, zure anai ertaina lagunduta. Lurpeko iturrira bidean, zuk eramango zenuke ontzi hutsa eta horri tinko eutsi Devdanek biraderari gor ematen zion bitartean ontzia urez betetzen zelako magiaz goxatuz. Agian, egunen batean, etxera bueltatu aurretik laku berdean igeri egingo zenuten amaren oihuak entzun arte eta, orduan, urez blai etxera bueltatuko zineten ontzia han ahaztuta. Errietak ez ziren faltako, baina ahizparen begirada leunak eta laztandurak ere jasoko zenituen.

Sei urtetik aurrera etxean lan anitz egongo zen zuretzat. Ahuntza jetzi, etxeko lurrezko zorua erraztatu, bi oiloei jaten eman eta arrautzak jaso, baratza landu, arropa garbitu eta abarrekoak. Eguna laster lagunekin kabaddira jolastera joango zinela pentsatzen emango zenuen, lan egin bitartean. Eta, zenbaitetan, zure gogoak errealitate bihurtu eta igandea lagunekin emango zenuen.

Gero, nerabezaroa ailegatuko zitzaizun, garaiz ailegatu ere. Hots, hamar urte bete bezain laster, etxeko eta inguruko gizon guztiak zu modu berezi batean tratatzen hasiko ziren. Anaiek ez zuten gehiago zurekin jolastuko, ez behintzat zuri gehien gustatzen zitzaizun bezala. Ezin izango zinen gehiago lakuan bainatu, ezta kabaddira jolastu ere. «Ekintza horiek ez dira emakumeentzako egokiak», errepikatuko zizun amak, behin eta berriro, ilea nola orraztu eta atondu irakatsiz. Momentu horretatik aurrera, ilea luze

eramaten ikasi beharko zenuen, olio bota eta egunero orraztu. Horretara ere ohituko zinateke, dena den. Era berean, kamiseta luzeaz eta praka zabalez osatutako *salowerkameezaz* ahaztu eta *saria* janzten hasi beharko zinen. *Sariaz*, zazpi metroko oihalez osatutako jantziaz, zure gorputza estaltzen ondo baino hobeto ikasiko zenuke hamalau urte betetzerako.

Aii... hamalau urteak! Maitatutako alderdi asko galdu ondoren, aldi bikaina zein gogorra etorriko zen zuretzat. Rani izeneko neska berria etorriko zen zure gelara ikastera. Lagun minak egingo zineten eta orduak eta orduak emango zenituzten hitz egiten eskolarako bidean eta bueltan. Izan ere, hamar km egin beharko zenituzten guztira. Bost km joana eta beste bost etorrera. Berrogeita bost minutu joan eta berrogeita bost minutu bueltatu, zure eguneko ordu eta erdi gogokoena. Denbora aurrera egin

ahala, jaiegunak gorrotatzen hasiko zinen. Egunek ez zuten zentzurik Raniren begirada eta irririk gabe. Berari kontatuko zenizkion bizipen goxoenak, baita sekretu gordinenak ere.

Egun batean, bazkaltzerako orduan, gizon ezezaguna topatuko zenuen etxean. «Hurbildu eta agurtu Aniruddha», esango zizun aitak, ahots sakon batez. «Aniruddha urrunetik etorri da zu ezagutzera. Hirian bizi da, adreiluz egindako etxe xarmangarri batean. Tren-geltokian dauka bere salmenta negozioa, beraz, oso aberatsa da. Ondo egongo zara berarekin hemendik aurrera. Orain goazen ospatzera. Bazkaldu ostean, agurtuko zaitugu». Soinu agudo jarraia entzungo zenuen buru barruan, hankak gogortu eta ahoa lehortuko zitzaizun.

«Zertaz ari da? Ni joan? Nora? Zergatik? Noiz ikusiko dut Rani? Zer gertatuko da Ranirekin? Eta nirekin?

Zer gertatuko da nirekin?». Pentsamenduak kolpatuko zitzaizkizun. Ez zenuen ulertuko zergatik momentu kritiko hartan non zeure familia, herria, eskola eta ezagutzen zenuen guztia galdu behar zenuenean, Rani zen zure gogoetarik nagusia. Ala, agian, bai ulertuko zenuen. Egia esanda, berdin zuen. Han egongo zinen, familia osoa alai, zure erreakzioaren zain. Ihes egiteko gogo sakona sortuko zitzaizun, baina ez zinen gai izango. Han zutik geratuko zinen, ama hurbildu eta mahaira lagundu arte. Bazkari osoan zehar, ez zenuen mokadurik dastatuko, nahiz eta mahai hartan horrenbeste janari ikusten zenuen lehen aldia izango zen (lehena eta azkena, hain zuzen). Hala ere, jango ez bazenuen ere, gauza ugari ikasiko zenituen mahaikideen elkarrizketari esker.

Aniruddhak tren-geltokian zuen negozioa freskagarri eta jatekoen postua zen. Bost mila rupia ordaindu zituen

zugatik. Berrogei urte zituen eta emaztea hilda zuen. Gaixotasunen bat omen zeukan, emakume gaiztoaren baten erruz, bere hitzetan. Eta zu izan behar zinen, neska purua izanda, gaixotasun horretaz askatuko zuena. Ez zenuen azken hori ulertuko, ez zinen emakume gaiztoei buruzko ezertaz jabetuko eta, are gutxiago, zuk horretan guztian zeneukan betebeharra atzeman. Edonola ere, berezia zinela sinetsiko zenuen, jakingo baitzenuen normalean emazteak ordaintzen zuela dotea eta bost mila rupia diru asko zen zure familiarentzat, lauzpabost animalia erosi ahalko zituzten. Hala ere, ihes egitea, Raniren bila joatea egokiena zela esango zizun ahotsa ere izango zenuen buruan.

Hortik aurrera gertatu ahal izango zitzaizkizunak asko dira. Litekeena Aniruddhak zu bortxatzea eta, ondorioz, bere gaixotasuna transmititzea da. Kasu horretan, kalean, bakarrik eta Raniz eta ihes egiteko aukera hartaz

oroituz hilko zinen. Agian, bestalde, modu batean edo bestean, ihes egingo zenuen eta Ranik zure egoera jakinda etxera bueltatzeko eta eginbeharrekoa egiteko eskatuko zizun beldurrez. Edo, beharbada, bere besoetan jaso eta zurekin joango zen etorkizun berri baten bila. Hamaika aukera, baina gehienak gordinak emakumeentzako Indian.

Hori guztia izan zintezkeen, baina ez zinen izan, jaio zinenean neska zinela ikusita ito egin zintuztelako. Familia txiroegia zen zurea beste neska bat hazteko eta ez zeukaten nahikorik bi dote egoki emateko. Hortaz, auzokideei hilda jaio zinela esan zieten eta erraustu zintuzten, zure hautsak gero ibai hurbilenera botatzeko.

Bizitzeko aukerarik ez zenuen izan eta, izanda ere, aukerak murrizak zein ankerrak izango ziren. Irakurle hori, bizirik zauden hori, egin dezagun lan mundu honetako emakumeok aukera gehiago eta hobeak izan ditzagun.

Maitasun pittin bat

Hotza, iluntasuna, gosea, bakardadea. Horiek dira nire aurreko bizitza deskribatzeko erabiliko nituzkeen hitzak; izan ere, nire bizitzako lehenengo urteak kalean eman nituen. Kalean jaiotako eta hazi nintzen. Latza izan zen aro hori; baina, behin, egunsenti batean, zakar artean janari bila ari nintzela, bi esku bero sentitu nituen nire gorputza besarkatzen eta handik aurrera guztia aldatu zen.

Aurretik ezagutzen ez nituen goxotasunez disfrutatzen hasi nintzen, sentsazio berri pila esperimentatu nituen; baita bizitza mota horretara ohitu ere. Baina, bizitza ez da beti guk nahi dugun bezala eta aldaketak nahitaezkoak dira. Izan ere, lurrak bira egiten duen heinean, gure barne munduak ere goitik beherako aldaketa jasan dezake.

Argi gogoratzen ditut etxe hartan emandako lehenengo egun leunak. Guztia zen distiratsu eta xarmangarri. Janari gozoa katiluan, laztandurak une oro eta kezkarik ez. Nire lekua aurkitu nuelakoan nengoen. Hango erregina sentitzen nintzen. Nahi nuen guztia egin nezakeen eta dena txalotzen zidaten. Izarekin borrokatu, haien entsaladako tuna jan konturatzen ez ziren bitartean, dutxa barruan lokartu... Edozer gauza ondo zegoen. Ni baldintzarik gabe maite nindutela sinetsi ere, sinetsi egin nuen.

Gero, zenbait hilabete igaro ostean, egoeraren epeltasuna desagertzen hasi zen. Ez nintzen ia konturatu ere egin, hots, poz-pozik jarraitzen nuen etxeak ematen zizkidan jolas-aukerak bilatzen. Tamalez, egun batean, nire pilotarekin gora eta behera tarte luzea eman ostean, ura edatera joan eta bai ur bai janari-katiluak hutsik aurkitu

nituen. Non da ura? Non janaria? Horien zain gelditu beharrean, eskatzera joatea erabaki nuen; gainera, horrela, bide batez, mainatxo batzuk jasoko nituela pentsatu nuen. Horra hor nire sorpresa eta ikara oihuak eta bultzadak jaso nituenean. Zerbait garrantzitsua ikasi nuen egun hartan, gauza gutxi dira betirako eta beti daude baldintzak.

Gertakari horri jarraitu zizkioten egunak ez ziren hobeak izan. Etxean oihuak ohitura bilakatu ziren eta, zenbaitetan, kolpeak ere entzuten nituen. Horrelakoetan, ohe azpian ezkutatu eta lasaitasunaren zain geratzen nintzen. Hala ere, ezin nuen alde egin; egun batean infernua izandako kalea irtenbide bilakatu zen orduan.

Baztertuta gelditu nintzen. Nolatan izango da ba garrantzitsua animalia bat gizakien munduan? Haien munduan lehen, bigarren eta hirugarren mailako arimak

daude, alabaina, guztia mailakatzeko beharra dute pertsonak. Esate baterako, lehen eta hirugarren mundua; lehen eta bigarren mailako jakiak, autoa, etxea edo bestelako edozein ondasun; eta lehen, bigarren eta hirugarren mailako kirol-taldeak. Zaila da eskailera horretan gora egitea, ezinezkoa ere zenbaitetan. Hala ere, ba al dakizue zer den okerrena? Askotan jaio garen maila horretan gelditu behar garela sinesten dugula, maila horiek guztiak errealitate izango balira bezala. Gure bizitza gizartearen mapa-kontzeptual bidegabe horretara moldatu egiten dugu, haien errealitate hori sinesten dugu, gezurrean bizitzea erabakitzen dugu (kontziente ala inkontzienteki). Hortaz, sinesmena errealitate bihurtzen dugu.

Dena den, ni katua baino ez naizenez, ez dut horrelako hausnarketarik egiten, pertsonen mundu konplexu horretatik at nago, zorionez. Edonola ere,

sentimenduak ditut eta nire inguruan gertatzen dena ulertzeko gaitasuna daukat, nahiz eta zure erara ez antzeman.

Beraz, esan bezala, hor nengoen ni, maitasunik gabeko etxe batean gatibu. Egunak joan egunak etorri, nire gurasoak bilakatutako bikotearen harremana desorekatua zela konturatu nintzen. Txikiagoa zena ordu luzeak ematen zituen etxean, zigortuta edo ezkutatuta zegoela zirudien. Etxean bakarrik nirekin geratzen zenean, astiro eta maitasunez laztantzen ninduen, baina mugimendu mekaniko horien bitartez transmititzen zidana tristura eta barne-min sakonak ziren. Askotan, bere magalean ematen nituen ordu horietan zehar, negarrez ere entzuten nuen eta nire azpian bere gorputza gogortuz eta dardarka sentitzen nuen, atea irekitzen zen bitartean.

Bizardunak, aldiz, ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzeko zuten, bere kidearen azalean agertutako ubeldurak eta zauriak ikusiko ez balitu bezala, bera horretatik guztitik at egongo balitz moduan. Are gehiago, poz-pez kontaktatzen zizkigun lanean eta lagunekin gertatutakoak, astebururako planak, jatea gustatuko litzaiokeena eta abarrekoak. Maddi eta biok mutu entzuten genuen eta Maddik, esfortzu handiz, irribarre bat oparitzen zion. Hala ere, nik, egoeraren partaide pasiboa izanda, tristura sakona nabaritzen nuen bere begiradan, ezin baitzuen ahaztu aurreko gauean gertatutakoa.

Hileak joan ziren eta egoera ezin okerretik okerrera joan zen. Maddi jada ez zen etxetik ateratzen, oso argal zegoen, bere ekintza bakarrak ni zaintzea, sukaldatzea, etxea txukuntzea eta erosketak internet bidez eskatzea ziren. Aurretik izandako harreman guztiak galdu

zituen, lana utzi eta sakelakoa tiraderan betiko gorde zuen. Bere habitat berria osatu zuen bere inguru tamalgarrian eta bihotz zaurituan geratzen ziren zatitxo minduekin. Maddik egokitutako egoera berri hori merezi zuela sinestarazi zion bere buruari eta bere izaera galdu zuen. Nik aurretik ezagututako Maddi bueltarazten saiatu nintzela zin egiten dut. Berarekin goiz eta arratsalde z jolastu nuen, bakardadea uxatu nahian, miauka bere inguruan bueltaka ibili nintzen maitasuna zer zen gogoraziko niolakoan, baina Maddi joana zen.

Arratsalde ilun batean, askotan gertatu ohi zen bezala, kolpeak hasi ziren. Maddik isiltasunez jaso zituen lehenengoak, baita gerokoak ere. Baina ordukoa gehiegi luzatzen ari zen, bere begirada ilunean nabaritu nuen. Behin betikoa zirudien. Amaiera. Gizonaren begiek transmititzen zutena, aldiz, ulertezina zen niretzat, hutsik zeuden edo,

agian, nik ulertzeko gaitasunik ez neukan. Beharbada, gorrotoa zen ala monotonia, batek daki.

So jarraitzen nuen, belarriak tente, ni inoiz maite izan nauen gizaki bakarraren azken arnasestua entzun, sentitu nuenean. Maddik, lurrera erortzearekin batera, atea ireki zuen, horrenbeste denboran zehar zeharkatu ez zuen irekidura, hartu ez zuen aukera niri eskainiz.

Senari jarraituta, bere gorputzaren gainetik igaro nintzen. Segundo batez, laster desagertzen hasiko ziren bere lurrina eta beroa jaso nituen. Opari preziatu horiek eraman nituen. Lorategian nengoela, Aitorren/ Franciskoren/ Steven/ Abdellaren/ Kaluren/ Xiren negarra entzun nuen.

Bihar, emakume gazte bat, genero indarkeriaren erruz, hil dela esango dute egunkarian. Hurrengo astean,

Maddi ahaztuta egongo da. Eskerrak katuok egunkaria irakurtzen ez dugunik, eskerrak gizakien «mundua» ezagutzen ez dugula.

Aisha

Gau hartan bereziki nekatuta nengoen. Bi botilekin putzura hurbildu eta horiek bete nituen. Etxera sartu nintzen eguzkia kanpoan utzita, baina ez nintzen hobeto sentitu. Egongelako lurrian, izara baten gainean, etzanda zegoen Zaid ilobaren alboan etzan nintzen eta, bere begirada sakon eta alaiaz goxatuz, nire indarrei joaten utzi nien.

Betidanik maite izan dut nire eguneroko bizitza. Eguzkia mendi urrunetatik irtetearekin batera, begiak irekitzen ditut eta egunari ekiten diot. Lurrian ipinitako izara gizona jaso eta gosaria prestatzen dut. Etxean zortzi gara; aita, ama, amona eta bost ahizpa-neba, bi ahizpa nagusi gehiago nituen, baina jada ezkondu eta senarren etxera joan dira bizitzera. Nik hamasei urte ditut, beraz,

oraingo z gurasoen etxean egon ahalko naiz urte gutxi batzuetan zehar.

Hausnartu eta, zenbaitetan, abestearekin batera, *harira* izeneko barazki-salda sukaldatzen dut eta aurreko eguneko ogi soberakinak ateratzen ditut mahaira. Ez banabil presaka, berandutuko zait eta aita haserretuko da. Ez dut hori gertatzerik nahi. Aita gizon ona da, ez ni gaizki ulertu; hala ere, aldiro behin, ama edo gu okerren bat egiten badugu, haserretu egiten da. Asko, gainera. Ondo baino hobeto gogoratzen ditut amaren oihuak eta negarrak aitarekin logelan itxita zegoela. Egun hartan astoa ihes egin zigun eta aitak ezin zigun hura barkatu; gauzen balioa zein den irakatsi behar digu, horiek ondo zaindu ditzagun.

Denok batera gosaltzea ez da derrigorrezkoa, izan ere, batzuetan lanaren ondorioz, ezin gara elkartu. Baina,

gosaria prest eta bero egon behar da gurasoentzat. Aitarentzat, bereziki.

Gosaldu eta gero, goizeko lehenengo eguzki-izpiekin batera, alpapa eta datilak jasotzera joaten naiz. Bi ekintza horiek bereziki maite ditut arrazoi ugariengatik. Alde batetik, inguruarekin harremanean nago, intsektuen hotsei erreparatzen diet, haize bolada labur eta epelak sentitzen ditut eta, gainera, ubideko ura atzamarrekin ukitu edo bertan oinak sartu ahal ditut inor inguruan ez bada. Halaber, jasotako alpapa zein datil zimel eta lehorrak animalientzat dira, haien janaria eta sostengua, eta nik animaliak maite ditut. Animalia guztiak miretsi eta gustuko ditut. Haiekin ondo konpontzen naiz, begirada soilaz elkar ulertzen dugu eta.

Animaliak elikatzerako orduan, denbora pixka bat ematen dut bakoitzarekin. Janaria lurrean utzi ez ezik, ahora ematea ere gogoko dut eta begietara begiratzen ditut. Animaliek nire esfortzua eta maitasuna sumatzen dutelakoan nago, hots, alaitasuna nabaritzen dut haien begiradetan hurbiltzen natzaien bakoitzean. Animaliekin ematen dudan denbora eguneko tarterik goxoenetarikoa da.

Ostean, zortziak aldera, etxera bueltatzen naiz. Sukaldean sartu eta eguneko ogia prestatzeari ekiten diot. Irina zaku handi batean daukagu, zenbaitetan zomorro txikitxo beltz batzuk ditu, baina ez dio axola, izan ere, ogia laberatzekoan hiltzen dira. Izugarri gustatzen zait ogi-orea eskuztatzea. Begiak ixten ditut eta nire ukimen zentzumenari ahalik eta etekin handiena ateratzen diot, eskuetako sentrazioetan zentratu eta inguruko guztiari joaten uzten diot. Batzuetan entzuteari ere uzten

diodalakoan nago. Hala ere, ekintza honetan ere ezin naiz gehiegi luzatu bost ogi borobil egin behar ditudalako eta horiek auzoko labe publikoan labekatu. Labe publikoa adobeaz osatuta dago herriko gainontzeko eraikin guztiguztiak bezala. Txikia da. Izkina batean, lurrean, labea dago, hau da, sua egiteko zuloa eta izkina horren goiko aldean tximinia funtzioa betetzen duen zuloa horman. Gelako lurrean kartoia eta makil finak daude sua pizteko. Barneko hormak belztuta daude kearen ondorioz. Han neska eta emakume ugari biltzen gara goizero; poz-pezik gainera, elkarri gure bizipenak kontatu ahalko dizkiogulako. Dena den, guztia ezin da kontatu, kontuz ibili behar gara. Azken finean, herrietan guztia jakiten da eta hobe dugu istilurik ez sortzea.

Ogia prest dagoela, etxera bueltatu eta bazkaria prestatzen dut ahizpa txikiekin batera. Haiek barazkiak

txikitzen dituzte, nik tajina prestatzen dudan bitartean. Barazki tajina nire platerik gogokoena da cous-cousarekin batera. Bazkaltzeko bai guztiok biltzen garela; egongelako lurrean eseri mahai baxuaren inguruan eta plastikozko bazina zein teontzia erabiliz, eskuak garbitzen ditugu. Mahai erdian, plater handia ipintzen da, pare bat ur edalontzi eta ogi puskak. Plater horretatik guztiok jaten dugu eta edalontziak ere partekatzen ditugu.

Arratsaldeko dinamika goizekoarekin bat dator, ogiaren prestakuntza kenduta. Hori egunean behin baino ez da egiten. Dena den, alpapa eta datilak jasotzea, animaliei jaten ematea eta sukaldatzea errepikatzen dira, baita garbiketa eta txukunketa ere. Zenbaitetan, hala ere, denbora soberan dut eta inor konturatu gabe paseotxo bat ematen dut ubidearen inguruan, palmeren itzala aprobetxatuz.

Gaur egun horietako bat da eta, etxeko zein herriko giroa lasaiari etekina ateraz, neure pentsamenduetan murgilduta oinez joan naiz zanga eta baratz txikien artean. Ordu laurden bat daramat ibiltzen, sentsazio berezia hasi zaidanean. Norbait niri begira ari dela sumatzen dut. Ezin da animalia bat izan, nire mugimenduei oso adi ari direla iruditzen baitzait, nitaz pentsatzen, ni jarraitzen... Hasieran, aita izan daitekeela pentsatu dut, horrek urduritu nau; agian, lan egin gabe nagoela ikusi eta haserretuko da. Ez dut etxean arazorik sortu nahi. Ni txikia nintzela, gogoratzen dut behin ahizpa nagusia, Fatima, zigortu zuela eta berarekin lo egitera behartu. Une hartatik aurrera, Fatima ez zen pertsona bera izan, tristura sakon batek hartu zuen barne barnetik eta ezkontzaren ostean agurtu nuenean ere, betiko agurtu, bere begiradan iluntasuna, isiltasuna eta hutsa baino ez nituen ikusi.

Azkar batean burua biratu eta aurpegi erdi-ezagun bat topatu dut zuhaixken artean. Auzokidea da. Baten batean, anaiekin jolasten eta eskolara joaten ikusi dut, baina ez dugu inoiz hitz egin, egia esanda oso gutxitan hitz egin dut senidea ez den gizon batekin. Zergatik ari da nire atzetik? Beldurrak hartu nau. Ez dut ulertzen zein arrazoirengatik egongo den niri segika eta, hortaz, ibiltzen jarraitu dut, arinago orain, etxera bidean. Begi-bazterretik bere harridura aurpegia nabaritu arren, aurrera jarraitu dut, ez baitu merezi arazorik bilatzea. Arnasestuka ailegatu naiz etxera, besape izerditua eta sutan kopeta. Arnas erritmo arrunta berreskuratu eta afaria prestatzeari ekin diot. Orduan, neba txikia etorri zait. Jolastu nahi du, baina nik lanean jarraitzen dut. Ez nago umore onean. Ezin dut mutil horren begirada burutik kendu. Orain gertatutakoa patxadaz aztertzen dudala, ez zirudien ezer txarra egin nahi zidanik.

Bere begiradan jakin-mina aurkitu dudala esango nuke; baliteke horregatik kezkatu izana ihes egin diodanean. Agian nirekin hitz egin nahi zuen, ni ezagutu, nire laguna bilakatu. Batek daki... Orain ezin dut asmatu zer gertatu den, beldurraren beldurrez ihes egin baitut, umemokoa izango banintz bezala. Eta damu naiz orain. Jakin-mina dut. Bera ezagutu nahi dudalakoan nago.

Afaria prestatzen amaitu, mahaia ipini, eskuak garbitu, ogia zatitu eta mahai inguruan esertzen gara. Gehienetan bezala, isilik afaltzen dugu. Neba txikia ingurutik dabil mokadu eta mokadu artean, eta eguneko informazioa trukatzeko esaldi labur batzuk ere hegan egiten dute mahaiaren gainetik, egongelako giroa zerbait alaituz. «Baratzeko piper gorriak osasuntsu daude», «Hannanen alabari senargaia atera zaio behingoz, eskerrak!»... Horrelako esaldi huts ugari jasotzen ditut, baina ez naiz adi

egoten. Esaldiok otorduko burrunba elikatzen dute, baina neure barnean dagoena behin eta berriro errepikatzen den film-eszena da. Ubidean gertatutakoa. Begiratzen eta jarraitzen ari nindutenaren sentsazioa, bere begirada, aurpegia... Inguruan gertatzen den guztia bigarren plano batean geratu da eta amak pare bat alditan oihukatu dit mahaia jasotzeko edo platerak garbitzeko, ez dut gogoan zertarako. Nire hodeian noa leku batetik bestera; oheratzerakoan ere horretan jarraitzen dut pentsatzen eta leihotik aurreko etxea begiratzen dut, hango argia itzalita dago jada.

Desertuan nago, beroa jasanezina da eta egarri naiz. Nekea eta egarria direla eta, lurrera erortzen naiz, etsita. Norbait hurbiltzen zait, bere itzala nabaritzen dut aurpegian. «Aisha, Aisha», esaten dit emeki. Bera da!

Esnatzen naiz. Nire ahizpa da eguzkia aurpegitik kendu didana eta esnatzeko deitzen didana. «Aisha, oso berandu da. Zer gertatzen zaizu?». Azkar batean jesartzen naiz lurrean. «Ezer ez. Ondo nago. Oraintxe prestatuko dizuet gosaria. Barkatu». Alqarf (القرف)! Zer demontre gertatzen ari zait? Atzo ezin nintzen lokartu. Mutil horretan eta bere begiradan pentsatzen itxi nituen begiak azkenean eta gaur ez nau eguzkiak esnatu, oilarraren kanta entzun ere ez dut egin. Zein arraro, nik ez dut horrelako jokabiderik izaten.

Egunari txarto ekin diot. Gosaria presaka prestatu beharko dut eta baliteke gurasoak haserretzea. Lanean hasi naiz. Bat-batean, atzoko sentrazioa bueltatu eta norbait niri so dagoela nabaritu dut. Nola liteke? Sukaldean nago eta. Leihora hurbildu eta aurreko etxerantz gidatzen dut nire begirada. Patioko eskaileretan dago, niri adi-adi begira; ez

du begirada kentzen. Are gehiago, besoa altxatu eta agurtzen nau. Ni hoztuta geratzen naiz, zer egin ez dakidala. Ezin dut gertatzen ari dena sinetsi. Azkenik, begirada galdu batekin irriñoa oparitzen diot, azkar batean nire zereginetara bueltatuz. Errutina. Errutina ona da, lasai zein seguru sentiarazten bainau.

Arratsaldean, berriro ere, atzo bezala, paseotxo bat ematera irten naiz. Baina, oraingoan inguruko guztiari inoiz baino adiago nago, zerbaiten zain egongo banintz bezala. Bere zain nago. Denbora aurrera doa eta ni nire pentsamenduetan murgilduta jarraitzen dut. Ezustean, gorputz bat nabaritzen dut nire ezker aldean. «*Salam aleikum!*». Sustoaren erreakzio txotxoloa ezin kontrolatuta, salto egiten dut. Geldi geratzen gara eta aurpegira begiratzeko gai naiz, azkenean. Bere begietara so nago. Haren irria jasotzen dut eguzki izpi epelen antzera. Horrela

geratuko nintzateke luzaroan, baina zerbait erantzun behar dudala konturatzen naiz. «*Aleikum salam*», esaten diot hitz totelka. Zer egin ez dakidanez, berriro ibiltzeari ekiten diot, baina nire begiradak bere aurpegian jarrita jarraitzen du tinko. Bera ere mugitzen da. Nire erritmoa jarraitzen du eta metro batzuk egiten ditugu aurrera dantza berezi, berri eta pertsonal honetan. Ustekabean, harri batekin estropezu egin eta lurrera erortzen naiz, eskuineko oin eta orkatila zangan bustiz. Chilaba pixka bat zikindu dut. A ze lotsa! Ezin dut sinetsi hau niri gertatzen ari zaidanik. Lurrean makurtuta geratzen naiz segundo batzuez, bere eskuak nire sorbaldetan ni altxatuz sentitzen ditudanera arte. Ezin dut burua altxatu, «*shukran*» lotsati bat bota eta, berriro ere, etxera ihes egiten dut.

Patioko iturrira noa zuzenean. Lokatza azkar batean garbitzen baldin badut, afarirako chilaba garbi eta lehor

izango da eta, hortaz, ez dut arazorik izango. Oihala indarrez garbitzen ari naizela, nire ekintza eta erabaki gehienak beldurraren arabera hartzen ditudala konturatzen naiz. Ubidetik, bere begiradatik ihes egin dut lotsa eta beldurragatik, baina han geratu nahi nuen, nire jakin-mina asetu nahi nuen, esperientzia horrek nora eramaten ninduen ikusi nahi nuen. Bizi nahi dut, errutinek eta betebeharrekin nire bizipen aukerak ekiditen ari dituzte.

Chilabak jada ez du lokatz arrastorik. Iturria itxi eta nire pentsamenduak biluztu egiten dira. Lotsatuta sentitzen naiz. Zertan nabil ni pentsatzen? Nire pentsamendu zein sentimenduen balazta zapaldu behar dut. Nire buruan sortzen ari naizena ez da mundu erreala, ez da nire bizitza, ez dago nire aukeren artean. Etxetik irten eta bere bila joateko gogoak itzaltzen zaizkit. Hori ere ez da egokia. Beraz, afaria prestatzeari ekiten diot eta inguruko guztiaz

ahazten naiz. Pikutara! Soberan dakit nik ez dudala erabaki beharrik, amak erabakiko du ni norekin ezkondu eta familia sortzen dudan. Horrelakoxea da sistema eta ni ez naiz hori zalantzan jartzeko gai.

Hurrengo egunetan, ez naiz arratsaldetan ubidetik paseatzera joango, ezta aurreko etxea begiratuko ere. «Askoz hobeto horrela», errepikatzen diot neure buruari bihotz taupadekin batera mina datorrenean. Zenbaitetan, zalantzak, gogoak, jakin-mina, interesa eta abarreko sentimendu pizgarriek bisitatzen naute; dena den, horiek isilarazi eta itzaltzea beste ezer egitea baino askoz errazagoa da.

Eskerrak bizitzak, zenbaitetan, nahiz eta gu itxita egon, opariak egiten dizkigun. Gaur, mutila ikusi dut berriro, ogia laberatzera nihoanean. Ezkerraldetik gerturatu

zait. Ez da gehiegi hurbildu, izan ere, goiza da eta edonork ikus gaitzake. Metro bateko distantzia mantendu eta nirekin hitz egiten egongo ez balitz bezala, ondorengoa esan dit: «Mesedez, gaur arratsaldean, animaliei jaten eman ostean, zangara hurbildu zaitez. Gaurkoan ez dizut erortzen utziko». Irribarre labur eta lotsatu bat oparitu eta bere bidetik jarraitu du, ni aho bete hortz utzita. Auzoko labera heldu naizenerako, hamaika pentsamendu dauzkat buruan bueltaka. Gertatutakoa norbaiti kontatu nahi diot, baina arriskutsuegia da hori. Labean ogia egiten bi lagun topatzen ditut. Edozein garrantzirik gabeko gaia jorratzen dugu, baita barre algara batzuk bota ere. Hala ere, nire sakonean dakit niri kezkatzen nauen gaia ezin dudala plazaratu. Haiek begi txarrez epaituko lituzkete nire mutil hori ezagutzeko gogoak eta, okerragoa dena, berria etxean esan eta herrira zabalduko litzateke. Horrek nire familia

lotsaraziko luke eta ez dut gainontzeko ondorioetan pentsatu nahi. Badira akatsen bat egin eta herriko kaleetatik betiko desagertzen diren neskak. Inork ez du haiei buruz galdetuko aurrerantzean. Haien etxeetan geratuko dira gatibu.

Hortaz, hau neure buruarekin bakarrik partekatu dezakedan sekretua da. Begiak itxi eta barne-elkarrizketa bat izateari ekiten diot, betidanik gustatu egin zait neure buruarekin hitz egitea, izan ere, batzuetan, ezagutzen ez nituen sentimendu zein pentsamenduak aurkitu ditut jolas honekin:

—Aisha, gertatzen ari zaizuna larria da. Ondorio latzak izan ahal ditu zure bizitzan. Beraz, mementora arte serio arrazoitu ez baduzu ere, hemendik aurrera hartzen dituzun erabakiak adostuak izan beharko dira.

—Beno, neska! Ez horrela larritu ere. Paseatzea eta leihotik begiratzea ez dira bekatu mortalak.

—Bai, bai, zuk txantxetan hartu guztia ea non amaitzen dugun. Pentsatu al duzu ea zer egingo duzun gaur arratsaldean?

—Ba... zera... Joango naiz! Bai! Zangara hurbilduko naiz. Gogoak ditut. Mutil hori ezagutu nahi dut. Paseatzeak ez du ezer txarrik eta, gainera, berak zuzenean eskatu dit. Agian, zerbait garrantzitsua komentatu behar dit. Nor naiz ni egin didan eskaerari uko egiteko?

Benetan urduri, alai eta gogotsu nago. Neure buruarekin izan dudana hartu-emana oso positibotzat hartzen dut. Bilera interesagarria izan da. Neure bi nortasunen artean ados ipini ala ez, lasaitu egin naiz.

Ordua heldu da, animaliei jaten eman diet. Gaurkoan, inoiz baino azkarrago. Bihotz taupadak buru barnean sentitzen ditut eta belarrietan entzun. Ubidera bideratzen naiz. Nire urrats ziurrek ez dute adierazten nola sentitzen naizen. Urduritasuna dela eta, izerdi patsetan naiz. Ondorioz, oinak uretan sartzea erabakitzen dut. Lurrean eseri eta behatzak uretan sartzen ditut. Mmmm... Goxotasunez hartzen dut bizkarra zeharkatzen didan hotzikara. Sentsazio hortaz goxatzearekin batera, esku beroa sentitzen dut ezkerreko sorbaldan. Begirada igo eta bere ezpainak irakurtzen ditut. «goazen» esan duelakoan nago, baina ez nago ziur, izan ere, nire bihotz taupadez osatutako burrunba entzuteko gai baino ez naiz.

Bere atzetik noa. Zangatik urrunduz goaz, erritmo onean, gelditu gabe. Bere oinetara begira nago, burua makurturik, gaizki portatu izan banintz, lotsatuta egongo

banintz bezala. Ezin dut gehiago jasan, burua altxatu eta hurrengoia galdetzen diot: «Nola duzu izena?». Harrituta dagoela iruditzen zait, baina gelditu gabe erantzuten dit «*Jamâl*». Ostean, baxu abesteari ekiten dio. Zuhaitzez betetako zelai batera heldu gara. Leku honetan nagoen lehenengo aldia da; hala eta guztiz ere, soberan dakit ez garela gehiegi urrundu. Izan ere, horrenbeste zuhaitz eta zuhaixka egoteko ura ezinbestekoa da eta, hortaz, ubidetik hurbil egon behar dugu.

Palmera enbor baten ertzean esertzen da eta eskuaz bere alboan esertzera gonbidatzen nau. Gehiegi pentsatu gabe, edo pentsatzea ekidinez, bere alboan esertzen naiz. Bere beroa nabaritzen dut, baina ez dut urrundu nahi. Han ondo nago.

—Denbora daramat zuri begira, txikiak ginenetik. Orduan, eskolara bidean ikusten zintudan, baina jada askotan ez zara klasera joaten. Aisha duzu izena, ezta?

—Bai, Aisha deitzen naiz. Eskola oso gogoko nuen, baina lan handia dago etxean eta ahizpa-neba asko ditut; hortaz, etxean geratu behar naiz laguntzen. Nagusitzerakoan irakaslea izan nahiko nuke, baina badakit hori ez dela aukera bat niretzat. —Ez dakit nondik atera dudan hori esateko indarra, baina bota dut eta ondo sentitzen naiz. Ez al nau ezagutu nahi? Ba hori naiz ni. Denbora aurrera doa eta Jamâlek ez du ezer esaten. Horrek urduritzen nau, izan ere, irakasle izatearena ahots gora esaten dudan lehenengo aldia da. Agian emakume ezegoki bat naizela pentsatuko du. Konturatu gabe, burua jaitsi, begiak itxi eta nire buruan mantra hau errepikatzen hasten naiz: «Barkatu, esan dudana ahaztu ezazu, ez joan».

Baina ez dirudi joatea pentsatuta daukanik, eskuaz ilea ukitzen dit eta burua igotzen. Begiak irekitzen ditudanean, neure buruaren isla ikusten dut bere begietan eta nire pentsamenduak irakurri izan balitu bezala, hurrengoia xuxurlatzen dit: «Ez izan beldurrik, ni ez naiz ezagutzen dituzun gainontzeko gizonak bezalakoa. Ez naiz joango zuk eskatu arte». Gero, irriño bat egin eta kopeta musukatzen dit. Oraingoan bai, hegan ari naiz, ez dut nire gorputza kontrolatzen, nirea ez dela esango nuke. Inoiz ez zait bururatu horrelakorik gerta zitekeenik. Denbora aurrera joan da eta eguzkia ezkututzen ari da; hobe dut lehenbailehen etxera bueltatu. Hori esan, altxatu eta herrirantz abiatzen gara abiadura onean. Ez dut arazorik sortu nahi. Bidean, etxeko gizon bakarra dela kontatu dit, izan ere, aita bera umea zela joan zen ama eta arreba guztiak bakarrik utzita. Haiek irakatsi diote zein indartsu

eta burujabe izan daitezkeen emakumeak. Bere iritziz, emakumeek eta gizonak gauza berdinak egin ditzakete. Adi-adi entzun ditut bere esanak. Interesgarria iruditzen zait esaten duena, baina pixka bat zoroa ere bai. Argi dago emakumeok eta gizonak ez garela gauza berak egiteko jaio. Bizitza gogorra izango zen aitarik gabe, miresten dut.

Auzora ailegatzen garenean, agur azkar batez urruntzen naiz. Ez dut inork gu elkarrekin ikusterik nahi. Hobe txutxu-mutxurik ez eragitea. Afarian, senideen elkarriketa entzutearekin batera, Jamâlen familiarekin harremanik ez dagoela konturatu naiz. Herriak etxe hori existituko ez balitz bezala egiten du. Otorduetan inork ez du haiei buruzko zurrumurrurik aipatzen eta auzoko labean Jamâlen arrebekin ez da solasten. Nolatan ez naiz konturatu orain arte? Batzuetan, familia baten edo bestearen kontra egiten da erabaki ezegokiren bat hartu duelako edo seme-

alaba batek akatsa egin duelako edota meskitara joaten ez direlako. Hala ere, familia honi egin zaiona bereziki gogorra da. Isiltasuna medio herritik bota dituzte. Haiek herrian jarraitzen dute eta neskek zein Jamâl eskolara doaz, baina askorentzat hemen egongo ez balira bezala da, existituko ez balira bezala. Nondik ateratzen da herri oso baten horrenbeste pozoi?

Nik horretan guztian parte hartuko ez dudala erabaki dut. Gainera, gaur, laburra izan bada ere, primeran pasa dut Jamâlekin. Gustura egon naiz oso. Ez diot horri uko egingo.

Egunak joan, egunak etorri, zangara joaten jarraitu dut arratsaldero eta arratsaldero ere Jamâl agertu da nire atzetik. Asko ikasi dugu bata bestarengandik. Berak ere animaliak asko maite ditu, bere familiak oiloak baino ez

izan arren. Igelak eta apoak dira bere animalia mota gustukoena. Hori oso berezia iruditzen zait, izan ere, haiek ez dute jakirik ematen, ezta lurra lantzen lagundu ere. Dena den, badirudi, Jamâlek ere animaliak begietara begiratzen dituela. Halaber, jan daitezkeen eta niretzat ezezagunak ziren fruitu zein sustrai batzuk erakutsi dizkit. Orain, paseatzerakoan jan ere egiten dut.

Egun, azkarrago amaitzen ditut nire zereginak ubidera joateko eta ubidea da, zalantzarik gabe, nire lekurik gogokoena. Gaur, azkeneko hilabeteetan egunero egin bezala, Jamâl eta biok gure palmeraren azpian bildu gara. Gero eta goizago biltzen gara, izan ere, eguzkia oraindik indarra dauka eta bero egiten du. Zenbaitetan egiten dugun bezala, makil bat erabiliz arean marrazten dut eta Jamâl saiatzen da marraztu dudana zer den asmatzen; gero alderantziz egiten dugu. Jolas dibertigarria da. Kontzentratu

egiten naiz. Gaur, irudien bidez, mezu ezkutua bidaliko diot. Makila hartu eta hodei bat marrazten saiatzen naiz, segituan hodeiaren azpian marratxoak irudikatuz; «eurial!», asmatzen du azkar batean. Eskuaz area lautu eta berriro marrazteari ekin diot, borobil luzatu bat marraztu eta horri lau hanka gehitu dizkiot. Ezin dut kolorerik erabili, baina belarra hartu eta zatitxo batzuk jarri ditut nire artelanaren gainean. Jamâlek, nire esfortzua eskertuz, «igela» esan du irribarrez. Nik beste irri batez erantzun zuzena eman didala jakinarazi diot. Lurra berriro berdindu eta bi mendi marraztu ditut, bata bestaren alboan, gero horiek azpian lotuz. Horrelakoak dira bihotzak iragarki poltsen eta lagunen pegatinen arabera. Jamâl begiratzen dut. Nire marrazkiari begira dago, so, isilik, kontzentratuta. Denbora aurrera doala, gero eta urduriago jartzen hasia naiz; azkenean, begirada altxatzen du eta nire aurpegira

hurbiltzen da. Gure ezpainak ia elkaturik daudela, zera galdetzen dit: «Norena da bihotz hori?», eta musu suabe eta laburra oparitzen dit. Begiak ixten ditut, inoiz ez dut horrelakorik egin, ez dut gogoratzen amak besarkatu ninduen azken aldia eta honek milaka sentimen sortarazten dizkit. Laburregia izan da, gehiago nahi dut. Bitan pentsatu ez eta begiak ireki gabe (agian, irekitzen baditut ez naiz gai izango), bere ahoa dastatzen dut berriro. Banatzen garenerako, nire gorputzeko atal bat ere ez dut kontrolpean. Hurbil geratzen gara, bata bestearen begietara begira, eskuak lotuta ditugu (Noiz hartu dizkiot? Ala berak hartu dizkit niri?) eta nire bihotz taupadak berarenekin nahastuta nabaritzen ditut, ezin esan norenak diren sentitzen ditudan bihozkadak.

Egarri naiz, beharra dut. Baina, sentitzen dudana egarria oso berezia da, ez baitut ahoan edo eztarrian

antzematen, sabelean baizik. Sabelaren behealdean zehazki. Nahi hau barne-barnetik sortzen zait. Barne sua pizten ari zait eta mina ematen dit. «Zer duzu?». Jamâlek mina sumatu du nire aurpegian. Ez dakit sentitzen dudana ondo dagoen eta, gainera, ez dakit nola azaldu; hortaz, ez dut ezer esaten eta buru mugimendu batez ezezkoa ematen diot. Dena den, bera ez da lasai geratzen eta nire eskua hartuta herritik pixka bat urrunago dauden zuhaixka batzuetara eramaten nau. Han, zuhaixken artean, esertzen gara eta, gero, etzan. Gure inguruan, hostoez eta adartxoez osatutako hormak ditugu, ezin dugu inguruko ezer ikusi eta inork ezin gaitu gu ikusi. Teilaturik ez, laster zerua ilunduz ikusi ahalko dugu.

Etzanda gaude, bata bestari begira. Hurbil. Nire barne-mina epeltzen ari da, minutu batzuetan sua itzaliko delakoan nago. Hala ere, senak sua gehiago piztu eta,

ondoren, itzaltzeko beste modu bat dagoela esaten dit. Egarrri naizenean ura edaten dut; zer behar dut orain? Pentsatzeari uzten diot, erlaxatzen saiatzen naiz, nire arnasa kontrolatuz; baina, nire esfortzu horiek bertan behera geratzen dira Jamâlek ni gerritik hartuta berarengana gehiago hurbiltzen nauenean. Gogorturik nago; hala ere, gertatzen ari dena gogoko dut. Gure ahoak berriro lotzen dira, oraingoan bata bestearen zaporea dastatzen dugu. Bere mingaina nire ahoan, bere listua nire ezpainenetan eta ni beretan. Bi gorputz lotu. Era berean, nire esku dardaratiak bere gorputzaren gainean ipintzen ditut. Bere berotasuna sentitu eta laztantzen dut. Nire laztandurak besoetan hasten dira, gero enborrera zein burura joateko. Berak ere antzera egiten du. Jada ez naiz gertatzen ari denaz zeharo kontziente, nire gorputzak dauka erabakia. Musuak agortezinak dira eta gure arimak elkarlotuak daude gorputz-

adarren bidez. Eskuak arroparen azpitik laztantzen hasi dira jada eta ez dago zonalde ezkuterik, ez dago mugarik. Arropa soberan dago. Jamâli prakak jaisten dizkiot eta berak nire chilaba igotzen du. Lotsa puntu bat sortzen zait berriro eta ez naiz behera begiratzera ausartzen. Bere zakila nire aluarekin kontaktuan sentitzen dudanean begiak ixten ditut, baina ez dut musukatzeari uzten (orain hori da kontrolatu dezakedan gauza bakarra, ezaguna dena). Gerritik tinko hartzen nau eta bere gainean ipini, nire sabela guztiz betez. Ni osatuz. Nik bera ere osatzen dut, badakit. Gure aurpegiak banatu egin dira eta, orain, dantzatzeari ekin diogu. Dantza lasaia eta erritmikoa hasieran eta azkarragoa gero. Pausu eta mugimendu bakoitza gure arnasarekin nahasten da. Begiak itxi ditut, ingurua desagertu egin da, ni desagertu egin naiz; gure arnasestuak gero eta urrunago entzuten ditut. Barnea uzkuratzen zait,

oihu bat botatzen dut eta nire gorputza Jamâlenaren gainean erortzen utziz, negarrez hasten naiz.

Zer egin dut? Zer demontre egin dut? Bat-batean konturatzen naiz. Hau da amak zioena, hau da emakumeok ezkondu arte egin ezin duguna. Hau bekatua izan da. Berriro ere nire beldurrak etorri dira bisitan eta, oraingoan, inoiz baino okerrago sentiarazten ari didate. Jamâlek oso kezkatuak begiratzen nau, gure gorputzak banatzen ditu eta chilaba jaisten dit. «Sentitzen dut, barkatu; mina eman al dizut?». Ezin diot ezer erantzun, ez naiz gai. Oraintxe bertan bion artean gertatu dena inoiz amestu dudana baino askoz politagoa izan da eta erreala oso. Neure senak neure burua gida zezan utzi dut eta sentazio bikaina izan da. Hala eta guztiz ere, urte askoren ostean, nire barnean kokatu den beldur, erru eta min pilota pisutsua ezin dut desagerrarazi. «Ondo da, ez larritu», erantzuten diot

azkenean eta bere aurpegia laztanduz musu bat ematera hurbiltzen naiz. Bera gogortzen da eta ez dit musua bueltatzen. Are gehiago, ez nau, lehen egiten zuen bezala, begietara begiratzen.

Altxatu egiten gara. Pixka bat minduta nago, baina horrek ez nau kezkatzen. Jamâlen jarrerak, berriz, izugarri kezkatzen nau. Haserretu al da? Eguzkia erortzen ari da eta ia ezkutatu da jada; beraz, hitzik trukatu gabe herrirantz abiatzen gara. Ez goaz eskuak helduta. Zergatik? Herrira gustatuko litzaidakeena baino lehenago ailegatzten gara eta bakoitzak bere etxerako bidea hartzen du. Banatu aurretik, elkar begiratzen dugu eta Jamâlek irribarre txiki batez goxatzen uzten dit. Eskerrak! Azken keinu horrek asko lasaitzen nau eta etxera pozik noa.

Gauean afaldu zein lokartu aurretik ezin izango dut beste ezertan pentsatu. Arratsaldea bikaina izan da, nahiz eta amaieran erruduntasun sentimendua piztu zaidan. Dena den, jolastu eta elkartuta geundenean Jamâlen jarrera hobezina izan bada ere, ez dakit zer gertatu zaion gero. Nigandik milaka kilometroetara urrundu da; haserretu ote da nire negarra entzunda? Nirekin horrelako jarrera izan duen lehenengo aldia da. Pentsamendu negatibo horiek urrundu eta zehetasun ederrekin geratzen naiz, horiek behin eta berriro errepikatzen lo geratzen naizenera arte.

Esnatzen naizenean izerditan blai nago eta oraindik ez du argitu. Amesgaizto oso berezi eta beldurgarria izan dut. Zangako gure palmeraren azpian eserita nengoan, bakarrik. Iluntzen ari zen eta ni eguzkiaren azken argi izpiei so ari nintzen. Ezustean, eguzkia guztiz desagertzearekin batera, haize bolada indartsuak hasi eta gure palmerako

datilak eroriz ni joka hasi ziren. Bazirudien ingurua nire kontra zegoela eta datilak niregana botatzen zituztela nahita, harriak izango bailira. Altxatzen saiatu nintzen, baina haizea oso indartsua zen eta asko kostatu zitzaidan; hala ere, ezin nintzen han gelditu datilek min handia ematen ari baitzidaten. Harea-ekaitza ere hasi zen eta inguruko ezer gutxi ikus nezakeen. Etxerako bidea iruditzen zitzaidana hartu nuen eta nire hanken indar guztia ipinita aurrera egin nuen. Bakardade sentimendu handia nuen barnean, Jamâl ez zegoen, ez zuen egon nahi. Informazio hori ezagutzeak kikildu egin ninduen, sabelean datil batek jo ninduen eta lurrera erori nintzen lau hanketan, baina aurrera jarraitu nuen. Ezin nintzen han gelditu. Luze eta mingarria egin zitzaidan bidea baina, azkenean, etxera ailegatu nintzen. Etxeko lurrean eseri nintzen. Gorputza minduta neukan. Ez zegoen inor. Berriro ere bakarrik.

Sabelean min zorrotza eta jarraitua sentitu nuen. Behera begiratu eta tripa handituta ikusi nuen. Zerbait nuen barnean eta mugitzen ari zen!! Komunera joan nahi nuen, nazka handia sentitzen nuen eta botaka egin nahi nuen, baina ezin nintzen mugitu, nekatuegi nengoen. Barnean neukana atera nahi zuen eta nik atea ireki nion, hankak irekiz. Alua handituz nabaritu nuen eta zerbait ateratzen hasi zen. Chilaba igo eta suge baten burua ikusi nuen nire gorputzetik ateratzen, beldurrez jota nengoen eta arnas egitea ere ahaztu zitzaidan. Begiak itxi nituen eta berriro ireki nituenerako sugea gelan zegoen niri begira. Hor gelditu nintzen, berari begira, mugitu ezinik. Sugeak mingaina atera eta, txistu artean, hau esan zidan: «Ez dizut koskarik egingo, azken finean nire ama zara; baina, hemendik aurrera eta betiko gu biok etxe honetan geratuko gara». Momentu horretan bertan esnatu naiz; eskerrak,

jasangaitza zen. Oso gogorra izan da hori amestea eta, gainera, erreala zirudien. Nekatuta nago eta buruko mina daukat. Badakit ezin izango dudala gehiago lorik egin; beraz, nire izarak jaso eta kalera ateratzen naiz arnas pixka bat hartzera. Jamâlen etxean argia eta mugimendua dago. Zein arraro. Begira gelditzen naiz ura edaten dudan bitartean; azken finean, goizegi da lanean hasteko, etxekoak esnatuko nituzke.

Jamâlen etxeko atea ireki eta bere ama ateratzen da. Triste dirudi eta bere mugimenduak geldoak dira, momentu hau luzatu nahiko balu bezala agortu ez dadin. Atzetik Jamâlek jarraitzen dio. Honen begirada ere tristura transmititzen du, baina bere mugimenduak zurrak eta indartsuak dira. Ondoren, arrebak ateratzen dira etxea hutsik utziz. Jamâlek guztiak besarkatzen ditu eta gero buelta eman eta, pausu azkarrez, urruntzen da. Urrunean

kamioneta baten gainera igo, beste gizon batzuekin batera jesarri eta badoa. Automobilak atera duen kea zein hondarrari begira geratzen naiz. Mugitu ezinik nago; beldurrak geldiarazi nau. Badakit nora joan den Jamâl. Kamioneta hori urtean bitan etortzen da mutil gazteak jasotzera. Horretan joaten diren mutilak ez dira herrira bueltatzen, hirira eramaten dituzte lan egitera eta bertatik dirua bidaltzen diete haien familiei. Familia txiroenen mutilak baino ez dira joaten, izan ere, lana gogorregia da eta egoera latzean egon beharra dago aukera hori bakarra edo egokiena dela erabakitzeko. Bueltatu diren bakarrak jada lanerako erabilgarriak ez zirelako izan da; zenbaitetan besoa edo beste gorputz atalen bat galdu dute edo oso gaixorik daude. Alderdi positiboak? Familiak diru sarrera ziurra izango du.

Argitzen hasi da, baina badakit nire barnean iluntasuna baino ez dela egongo luzaroan. Ez dakit zer ordu den, ezta zenbat denbora daramadan infinitura begira, lurrean erorita, katilua eta, alboan, ur putzua daudelarik. Irudi tamalgarria; egoera latza. Begiak kliskatu, burua mugitu, nire barne iluntasun guztia barneratu, belaunikatu plastikozko taza eta ura jaso eta, ezer gertatuko ez balitz bezala, nire eguneroko zereginei ekin diet. Joana da; hortaz, hobe dut lehenbailehen egoera berri honetara ohitu. Ez dut inorekin hitz egingo, inork ezin du jakingo nik zer bizi izan dudana, niretzat izango da esperientzia osoa, niretzat mina.

Egunak joan, egunak etorri, arratsaldero zangara joaten jarraitzen dut. Bizitza berdin jarraitzen du. Betebeharrak jorratu eta paseotxoak eman. Falta den gauza bakarra nire azken asteak alaitu zituen pertsona, bizitzari zentzua eman ziona da. Jamâl. Denborarekin bere irudia

difuminatu eta galdu egingo delakoan nago, baina oraingoz egiten dudan guztian dago. Animalien begiradan, igelen saltoetan, uretan eta bertan bizitzarik gabe mugitzen diren algen antzeko landareetan (igelen azala zela esaten genuen guk)... Gure palmerara joateko gai ez naiz izan oraindik; are gutxiago maitatu egin ginen txoko horretara. Mingarriegia da oraindik.

Etxean nago. Barneko patioan eseri eta ahizpa-anaiak nola jolasten diren ikusten geratu naiz. Bero egiten du, baina jasangarria da. Jamâlekin paseatzen gustura baino gusturago egongo nintzateke. Nire pentsamenduetan murgilduta nagoela, bi emakume sartzen dira etxera. Ama eta ezezagun bat dira. Egongelara doaz eta amak atea ixten du bere atzetik. Jarrera horrek kezkatzen nau, izan ere, auzokideak bisitan etortzen baldin badira, sarreran geratzen dira normalean. Oso gutxitan sartzen dira egongelaraino.

Zerbait garrantzitsua izango da edo larria, agian. Minutuak poliki igarotzen doaz eta aita gizon batekin egongelara ere sartzen da. Afaria prestatzera noa. Barazkiak txikitzea, ura irakiten ipintzea eta abarreko ekintzek lasaitzen naute, baina ezin dut burua hustu.

Afaltzeko ordua da. Mahaia prestatu dut jada eta neba-arreba guztiak eserita gaude inguruan, baita amona ere. Hala ere, ezin gara afaltzen hasi gurasoak oraindik ezezagunekin daudelako egongelan. Eskerrak horman erlojurik ez dugunik, bestela segundo bakoitza amaigabea gertatuko zitzaigun orratzen soinuekin. Azkenik, amak atea ireki du. Bere atzetik bikote ezezaguna atera da eta aitak taldea ixten du. Hitz egiten atera dira. Hitz jatorrak, baina hutsak. Aurpegi alaiak, baina hutsak. Zurikeria, faltsukeria galanta da, azken finean, negozioetan gerta daitekeena.

Auzokideak joan eta gurasoak mahaiaren inguruan eseri dira. Ohikoa ez den bezala, zoriontsu dirudite. «Ea, afaltzera ekin diezaiokegun», botatzen du aitak eta guztiok jaten hasten gara; gose gara. Jarraian, amak, garrantzirik gabeko pasadizoa botatzen egongo balitz bezala, zera esaten du: «Berri ona daukagu zuentzat. Aisha laster gaur gurekin egon direnen semarekin, Nailekin, ezkonduko da.» «Eeezzzz!!!! Oraindik ez!!», oihukatzen dut neure barnerako, baina ez dut ezer esaten. Burua jaitsi eta baiezko bat irudikatzen dut burua mugituz. Banekien hau gertatuko zela, baina denbora gehiago neukala uste nuen. Mina sentitzen dut bihozkada batekin nahasturik, izan ere, modu batean edo bestean Jamâlekin ezkonduko nintzela sinesten bainuen oraindik. Ergel halakoa. Gurasoak pozik baldin badira ere, afari giroa ez da alaitu. Ni ere ez nintzen alaitu ahizpak galdu nituenean. Agur esatea gogorra da.

Gorputza tentelduta dut, burmuinak mezurik bidaliko ez balu bezala. Oheratu, lokartu, esnatu eta hurrengo egunean antzera jarraitzen dut. Eguneroko zereginetan motelak dira nire mugimenduak eta ez nago bat ere fina, gauzak erortzen zaizkit eta ez diet inguruko soinuei erreparatzen. Tristuraz eta gogogabekeriaz baino ez nago beteta. Arratsaldean pixka bat hobeto sentitzen naiz eta zangara joatea erabakitzen dut. Hara joan behar dut. Ez naiz nire gorputzaren jabe eta hankak eramaten nauten lekuetara noa. Konturatu gabe, gure palmeraren aurrean nago. Hemen nago. Esfortzu handia eginez, bere azpian, gure betiko lekuan, esertzen naiz.

Begiak ixten ditut eta nire alboan zaudela imajinatzen dut. Nire arnasketa soinua zurea dela, eskua hartzen eta laztantzen didazula eta buruan musu ematen didazula. Irribarre bat ateratzen zait eta negarrez hasten

naiz. Hasieran, malko isilak baino ez dira; baina, lurrera erortzen direnerako, nire arnas ezgulak eta negar-auhenak kontrolaezinak dira. Husten naiz, nire barne minari joaten uzten diot, barnean neukan guztia kanporatzea beharrezkoa neukan oso. Gorputza aurrera botatzen dut, burua belaunen artean ezkutatuz. Mugimendu horrekin batera, eskuineko sorbaldatik zerbait erortzen dela nabaritzen dut. Lasaitzen naizenean, begiak irekitzen ditut eta nire aurrean paper zati bat topatzen dut. Esku dardaratiez hartu eta irekitzen dut. Gutun bat da, Jamâlek idatzitako gutuna. Ziur aski gure palmeraren enborrean ezkutatuta zegoen eta nire gorputzaren mugimenduez atera dut. Niretzat da eta hurrengo esaten du:

«Aisha maitea,

Eskutitz hau topatu baduzu, gure palmerara bueltatzeko indarrak atera dituzulako da. Ondo egin duzu. Emakume indartsua zara eta, agian orain beste gauza bat pentsatu arren, laster zure bizitzan beharrezkoa ez naizela nabarituko duzu. Jada jakingo duzun bezala, nire familia txiroa da eta geroz eta krudelagoa da gure bizitza amak gizonik gabe alde batera uzten dutelako herrian. Hori dela eta, hirira lanera joan behar izan dut, nire ikasteko desioak eta zurekin egoteko ametsa alde batera utziz. Gauzak beste modu batekoak izan balira, ni ere beste pertsona mota izango nintzateke. Dena delakoa ere, eta soberan dakizun bezala, maite zaitut eta bizitzan onena opa dizut.

Jamâl.

P.d.: Hau guztia aurpegira esan ez izana sentitzen dut, barka nazazu».

Eskutitzak informazio berririk ematen ez badit ere, behar nuen guztia dela iruditzen zait, ura desertuan bezala. Ezin izango dut Jamâl eta beragatik sentitzen dudana erraz alde batera utzi, baina, orain, behintzat, badakit berak ere ez ninduela nahita utzi.

Egun hutsak aurrera doaz. Sentimenduak ezkutatu behar ditut amaren aurrean nire senarra izango delakoaren dohainei buruz hitz egiten didanean. Tristura, egonezina eta amorrua aurpegi neutro baten atzean.

«Gaur, Nail ezagutuko duzu, Aisha», esango dit amak goiz goibel batean, «bazkaltzera etorriko da bere gurasoekin batera. Nahiko haragi beharko dugu, beraz, hil itzazu bi untxi». Maite ditudan bi untxi hil beharko ditut

maite ez ditudan zenbait pertsoneri jaten emateko. Horrelakoa izango al da nire bizitza aurrerantzean?

Untxiak hiltzea espero bezain gogorra izan da. Amak aukeratu ditu gizenenak eta niri eman dizkit. Haiek pozik daude nirekin. Jaten emango niela pentsatu dute, baina hori egin beharrean, harri handi bat hartu eta buruan kolpe bana eman diet. Ez nuen nahi, baina horrela haien mina txikiagoa izango zelakoan nengoen. Hilik bazeunden ere, atzetik etorri dena, odolustea, larrutzea eta haragia txikitzea ere gor baino gogorragoa izan da. Batez ere, burua.

Dena den, bazkalordua nahi baino lehenago ailegatu da. Guztia prest dago. Ni mahaiaren inguruan esertzen naiz eta gurasoak Nail eta haren gurasoei ongiatorria egitera joaten dira. Aurpegia altxatu eta gaur nire mahaikideak

izango direnak gelara sartzen ikusten ditut. Nire gurasoen atzetik, Nailenak sartzen dira. Ama emakume laburra da. Aurpegia zimur ugariz zeharkatuta dauka, begi beltz txikiak ditu eta ile beltz pixka bat ikusi ahal izan diot zapiaren azpian. Aita, aldiz, garaia da, aurpegia belztuta dauka eguzkiaren eraginez eta ilea zuritzen hasi zaio. Serioa dirudi, ia haserre. Azkenik, Nail sartzen da. Mutil jatorra dirudi eta erakargarria da oso, baina, gure begiradak gurutzatzen direnean, beldurra baino ezin dut sentitu. Hala ere, begirada mantentzen diot eta, bera ez bezala, irri bat oparitzen saiatzen naiz. Amak ostikada bat ematen dit mahai azpitik eta nik begirada nire eskuetara jaisten dut.

Nagusien artean garrantzirik gabeko gauza aspergarriei buruz hitz egiten hasten dira eta giroa lasaitzen da. Nailek, nik bezala, ez du hitzik bota, baina elkarrizketa jarraitzen duela dirudi. Lekuz kanpo sentitzen naiz.

Lehenengo platera jaten amaitzen dugunean, amak bigarren platera ateratzeko eskatzen dit eta sukaldera laguntzen nau. «Aisha, mesedez, ez izan lotsagabea! Nail zure senarra bilakatzea nahi baduzu, errespetu pixka bat erakutsi beharko diozu. Ez berriro begiratu bera modu zuzen horretan, noiztik zara zu horren lotsagabe?». Isilik geratzen naiz. Egia da; lehen ez nintzateke mutil bat zuzenean horrenbeste denboraz begiratzeko gai izango, baina orain, Jamâli esker, beste emakume mota bat naiz. Tentela izan naiz pentsatuz Nailekin horrelako konexioa lor nezakeela.

Bigarren platerarekin batera, mahaikideen elkarrizketari adiago egoten naiz. Batez ere, niri buruz hitz egiten dutenean. Nailen amak hurrengoak botatzen ditu: «Nail, seme, Aisha emazte egokia da zuretzat, izan ere, begiratu zein aldaka zabal dituen, seme-alaba ugari izan ahalko dituzue. Gainera, etxeko zereginetan etxe-andre

bikaina da, ezta?», esaten du aitari begira. Aitak, niri begiratu gabe, ondorengo erantzuten du: «Aisha egunero goiz altxatzen da egin beharreko guztiak betetzeko, ondo hezita dago eta ez dizue arazorik emango». «Ondo da», gehitu du Nailen aitak fruta hartzen gaudela, «bihar, herriko emakume batzuekin bueltatuko gara zuen alabari zapiaren proba egiteko». Bostak atera abiatu dira eta elkar agurtu dute, nik mahaia jasotzeari eta platerak garbitzeari ekiten diodala.

Bihar gaur bihurtu da eta emakumeak etxera etorri dira. Egongelan sartzeko agindu didate eta atea gure atzetik itxi dute. Nire etxean bertan atzerritar sentiarazten nau egoera honek. Lurrean egokitutako izara batean etzan naiz haien aginduei jarraituta. Amak agindu didan bezala, chilaba baino ez daramat, ez prakarik ez kulerorik. Lotsatuta nago, begiak ixten ditut eta erlaxatzen saiatzen

naiz. Dena den, hankak irekitzen dizkidatenean, gorputz osoa gogortzen zait, ezin dut ekidin. Nire aurrean dagoen emakumeak zapi batez estalitako eskua sartzen dit hanka-artean. Haren atzamarra baginan sentitzen dut eta jarraian nire barnean. Sentsazioa guztiz ezezaguna da, ez du Jamâlekin sentitu nuenarekin zerikusirik, noski. Animaliatzat tratatua sentitzen naiz. Erabilia, ebaluatua, testatua. Luzea egiten zait momentua. Azkenik, emakumeak zapia ateratzen du nire barnetik. Zapia ez da gorriz tindatu. Emakume guztien begirada gaitzesleak sentitzen ditut nire gain. Hankak ixten ditut, chilaba jaitsi, jaiki eta gelatik irteten naiz. Haien begiradak jarraitzen nautela nabaritzen dut, baina haiei erreparatuko ez banie bezala nire eguneroko zereginei ekiten diet. Lana daukat eta berandu nabil.

Bazkalorduan, etxean etxeako soilik egonda, aitaren kolpeak jaso eta amaren negar gordinak jasango ditut. Nazka begiradak ohitura bihurtuko dira niretzat kalean eta momentu honetatik aurrera, ilea estali ez ezik, aurpegia ere estali beharko dut, begiak soilik erakutsiz, aurretik gehiegi erakutsi dudanaren seinale.

Horregatik guztiagatik Jamâl gorrotatu beharko nukeelakoan egongo dira asko, baina hark oparitu zidana inork ez dit berriro eman, momentuan baldintzarik gabekoa izan zen maitasun erreala. Beraz, nahiz eta horrek nire bizitza osoa baldintzatu, hau zen gertatu behar zitzaidana. Nik ez nuen Nail edo beste inorekin ezkondu eta bere familiarekin bizitzera joan eta maite ez dudan gizonarekin pila bat seme-alaba eduki nahi.

Urteak joango dira.

Gau batean bereziki nekatuta egongo naiz. Bi botilekin putzura hurbildu eta horiek beteko ditut. Etxera sartuko naiz eguzkia kanpoan utzita, baina ez naiz hobeto sentituko. Egongelako lurrean, izara baten gainean, etzanda dagoen Zaida ilobaren alboan etzan eta, bere begirada sakon eta alaiaz goxatuz, nire indarrei joaten utziko diet.

Joandu Kimani

Bizitza ematen edo luzatzen didan oxigenoak berak zahartzen nau. 27 urte ditut eta aurten, urrian, 28 beteko ditut. Bizitzeko nahikoa izanda ere, nire irakasle soldata eskastzat hartzen dut. Dena den, haurrak laguntzea benetan maite dut. Erljio ikasgaia irakastea bereziki gustuko dut, izan ere, horrela bihotz-oneko pertsonak sortzeko aukera daukadalakoan nago.

Atzo matatu deritzon furgonetan bidaiatu nintzen. Matatuak bidaiariz gainezka egon ohi dira, eta atzoko matatuarena ez zen salbuespena izan. Jendetza horren artean, nire aldamenean eserita zegoen gizonaren gorputza nirearen kontra nabaritu nuen, gure azalak elkar laztantzen baleude bezala. Begiak itxi eta nire esku dardartia

berarenarengana hurbildu nuen. Horiek, bizitza propioa izango balute bezala, elkar besarkatu zuten, baita laster gainontzeko gorputza mehatzen hasi ere. Konturatzerako, eskua haren prakén barruan nuen eta bere zakil gogortuarekin goxo eta modu erritmikoan jolasten ari nintzen, berak gauza bera egiten zuen bitartean. Minutu gutxi batzuetan, plazerari ezin eutsirik, oihu sakon batekin batera begiak ireki nituen. Ohean topatu nuen neure burua izerditan blai eta eskua itsaskor.

Zenbaitetan, tamalez, ametsak ez dira horren goxoak. Iluntasunez inguratuta nago. Emakume zein haurrak aspaldi ezkutatu dira herriko udaletxean. Aitarekin geratu naiz gure etxea eta baratza babeste aldera. Kristalén hotsek gorputza zeharkatzen didate. Suntsitzailearen aurpegiaren bila burua biratzen dudanean, min gor zein beroa sentitzen dut masailean.

Geziak sortutako lerro ez-zuzena nirekin bizitzera geratuko den bezala, beldurra eta egonezina sentituko dut neure burua ispiluaren aurrean ikusten dudan bakoitzean. Hauteskunde garaia hurbiltzen den aldiro, hizkuntza ezberdineko tribuen arteko liskarren beldurra zorrotzago, indartsuago piztuko zait. Inoiz baino maizago otoitz egingo diot, orduan, gure Jainkoari babes gaitzan.

Jainkoari ere eska diezaioket mutil-laguna? Zein pozik biziko nintzateke berarekin ezkutuan. Inork ezingo luke jakin mutil batekin harreman bat dudanik, bestela albo batera utziko nindukete, batxilergoan nire klasean zegoen mutil bati gertatu zitzaion bezala. Ikaskideek ez zuten hitzik trukutzen berarekin, ez zioten ezta jolasetan parte hartzen uzten ere. Azkenean, guztiz isolatuta zegoenez, eskolaz aldatu zuten. Ez dut berari buruz berririk izan. Nire lehengusu bati ere antzekoa gertatu zitzaion. Belarritakoak

jantzi eta ilea tindatu zuenez, familiak ez zuen berari buruz ezer gehiago jakin nahi izan.

Hala ere, nola bizi daitezke gayak hola? Ez al dira HIESaren beldur? Edo uzki-mina pairatuko dute? Behin irratian entzun nuen gizon bati zenbait organo atera zitzaizkiola ipurtzulotik bertatik harreman sexualak izatearen ondorio. Ez da osasungarria. Argi dago. Gainera, kondoi egokiak aurkitzea ez da erraza, eta lubrifikaziorik gabe ez al du minik emango?

Ez dut inoiz gizon batekin harreman sexualik izan, ezta horretan serioски pentsatu ere, nahiz eta gauero horrelako ametsak izan. Batzuetan, ametsak amesgaizto bilakatzen dira, izan ere, horietan, bekatuan harrapatzen gaituzte. Hortaz, auzokideek hemendik botatzen naute eta ama maitea nitaz lotsatzen da. Lana galdu eta, inork ni

salatu baino lehen, ihes egin behar dut. Beste batzuetan, aldiz, maitalearen zakila nire barnean hartu eta gero, komunera joan eta barneak uzten zaizkit.

Emakume batekin ere ez dut inoiz larrurik jo; hala ere, noiz edo noiz, batekin ezkonduko naizelakoan nago. Garaia da, dagoeneko, niretzat eta inguruko jendea hitz egiten hasia da. Berri ona? Seme-alabak izateko baino ez dugula txortan egin beharko.

2017/07/03

Lan egiten dudan eskola Garapenerako Gobernuz Kanpoko Elkarte batetik eratorria denez, udan zehar zenbait bolondres izaten ditugu inguruan. Zein pozik nagoen etortzen hasi direlako.

2017/07/05

Haiekin guztia errazagoa da. Ni izan naitekeela iruditzen zait. Ez dut eskutatu beharrik. Gaur tabernara gonbidatu naute. Nik ez dut alkoholik edaten; beraz, freskagarri bat erosi didate. Ordu bete baino ez naiz egon, ez baitzait oso egokia iruditu tabernan luze egotea. Hala ere, zein aske diruditen haiek. Ingurukoa axola ez diela dirudi. Musika eskatu eta dantzatzen hasi dira.

2017/07/07

Asteburua ailegatu eta ihes egiten dute bolondresek. Animaliak ikusi nahi dituzte eta Safarietara doaz. Nik ez dut inoiz ez lehoirik ikusi, ezta pentsatu ere! Ah zer-nolako beldurra!

Faltan botako ditut, baina ziur bueltan argazkiak erakutsiko dizkidatela. Igandean mezara joango naiz. Nire amets zein desirengatik barkamena eskatu beharko dut. Ea eliz-lagunek Jainkoaren barkamena lortzen laguntzen didaten...

2017/07/09

Mezara joan naiz gaur goizean. Goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata arte egon naiz han. Betiko moduan. Lehenengo, pertsona garrantzitsuen hitzaldi motibagarriak entzun ditugu. Gaurkoan lanari buruz eta zentzuzko erabakiei buruz egin dute berba. Jainkoa entzun eta bere gidapena jarraitu behar dugu. Horretarako etorri baikara mundura.

Ondoren, aurrera ateratzeko eta belaunikatzeko eskatu didate. Inguruan jarri zaizkit zutik eta azken asteetan

etorri ez izana aurpegiratu bitartean, buruan zein sorbaldetan emeki kolpatu naute eta otoitz egiten hasi dira. Laster hasi zaizkit malkoak, nolatan kexkatzen dira horrenbeste nigatik? Ez dut hainbesteko maitasunik merezi...

2017/07/10

Boluntarioak bueltan dira. Gaur arratsaldean, klaseen ostean, horietako laukote bat eraman beharko dut familia batekin elkarrizketa izatera. Boluntarioek oinarrizko produktuez (xaboia, arrosa, irina...) osatutako zakua eramaten diete familiei eta azken horiek haien miseriak edo bizi-moduak kontatzen dizkiete ordainetan.

Itziar ezagutu dut gaur. Talde horretan zioan, irri zabala erakutsiz. Laster hasi zait hizketan, ea zer moduz nagoen, ea pozik nabilen irakasle, ea zein ikasgai dudan

gogokoen, ea ez didan axola haiek laguntzea etxeetara... Harrigarria egin zait bere jarrera, izan ere, gutxitan luzatu dizkidate horrelako galderak. Zenbaitei zer erantzun ere ez nekiela geratu naiz.

Bisitatik bueltan nire etorkizunari buruz galdetu dit! Unibertsitatera joan nahiko nukeela erantzun diot. Baina ez dakit inoiz lortuko dudan garestiegia baita. Hori Jainkoak erabaki beharko du.

2017/07/12

Atzo klasean nengoela Itziar eta bere laguna, Ana, sartu ziren. Laguntzeko prest zeudela eta joan aurretik sexualitateari buruzko tailer bat egin nahiko lukeetela esan zidaten. Nik ez dut ulertzen zer zerikusia daukaten eskolek sexualitatearekin, baina baietz esan nien. Nola ukatu?

Gaur arratsaldean, berriro joan naiz haiekin bisitan. Motorrak hartu ditugu hurrunegi baitzegoen etxea, baina bideak harriskutsuegiak iruditu zaizkienez *mzungu-ei*¹, buelta oinez egitea erabaki dugu. Behintzat errepidera arte.

Bidean zehar Itziarrekin berriro hitz egiteko aukera izan dut. Baita ondo hitz egin ere. Berak neska batekin duela harremana esan dit. Asko maite duela, baina ez zela erraza izan hasieran. Arazoa ez dela gurea eta maitasuna bizitzeko eta harremanak izateko aukera anitza dagoela azaldu dit.

Zer erantzun ez nekiela geratu naiz. Azkenean, nik ere mutilak gustoko ditudala azaldu diot. Elkarrizketa sakona etorri da gero. Izugarri zaila dela azaldu diot eta

¹ Bantuerazko hitza. Azala zuria daukatenei deitzeko erabilia.

inoiz ez dudala seriozki mutil batekin harremana izatea pentsatu. Buel tako bidea laburregia egin zaidanez, nire etxera gonbidatu ditut haiekin denbora gehiago pasatzeko aitzakia izateko.

2017/07/13

Atzo Itziarri nire sekretua kontatu nionetik, bizitza ez da berdina. Alde batetik, beldur naiz momentu oro. Beharbada, Itziarrek Anari edo beste lagunen bati kontatuko dio eta eskolako zuzendariak edo irakasleren batek entzungo balu, nireak egin du. Lana galduko nuke.

Bestalde, inoiz baino askeago, niago sentitzen naiz. Hau da sentitzen dena ahotsgora esan eta gero?

Bazkalordua ailegatu baino lehen, nire klasean sartu da Itziar. Ikasleek lan egiten zuten bitartean, noten

boletinak prestatzen ari nintzen eta lagundu nahi zidala esan dit irribarre egitearekin batera. Ikasleak patiora atera direnean ere, han jarraitu dugu elkarrekin ezergutxi esan gabe, baina begirada goxoak trukatuta. Norbaitekin horrelako konexioa izatea ederra da oso.

2017/07/14

Ai ama! Hau idaztearekin batera urduritu egiten naiz. Gaur laupabost bolondresek sexualitate klase bat irakatsi dute ni izkina batean guztiz izututa nengoela. Ez naiz, hala ere, beldurtu den bakarra izan. Mutikoen estutasuna nabaria zen, baita nesken egonezina ere.

Gazte bolondresek, inongo konturik gabe, hasi dira harreman sexualei, IHESari eta kondoiei buruz hitz egiten. Anak «bi neska edo bi mutil bikote ere izan daitezke» esan

duenean, ikasle gehienek edo, beharbada, guztien buruko ezezik mugimenduak geratu zaizkit gogoan grabatuta.

Saioa amaitzen ari zela, beste boluntario bati arbelean kondoi bat irudikatzea bururatu zaio. Ikasleak harritu dira, oiheri batzuk ere entzun dituzte (niri ere garrasi laburra ihes egin didalakoan nago).

2017/07/16

Hau idazten dudana bitartean ohean etzanda nago. Altxatzen saiatuko banitz ere, ez dakit gai izango nintzatekeen. Igandea da, dena den. Eta egun osoa daukat atzo egindako pekatuaz hausnartzeko.

Ostiral arratsaldean, boluntario gehienak asteburu pasa joan ziren. Hala ere, astelehenetik aurrera Keniatik bidaiatzen hasiko ziren zenbait boluntario Molon pare bat

egun gehiago geratzea erabaki zuten. Haien helburua umezurtegiko haurretaz zein herriaz agurtzea zen. Imaginatu zernolako sorpresa hartu nuen, atzo, larunbat arratsaldean, nire etxean atejoka topatu nituenean erosketetatik bueltan.

—Tabernara goaz zerbait hartzera, etorri nahi? —
galdetu zidan Julenek irribarre zabala eta begiak dirdir.

Nik, gehiegi pentsatu gabe, barazki poltsak etxeko lurrera bota eta haien atzetik joan nintzen. Tabernara bidean ginela, haien hizkuntzan hitz egiten hasi ziren eta ez nuen ezer ulertzen, baina Julen nire albora hurbildu eta hitz egiten hasi zitzaidan.

Pertsona nagusiak zein ezgaituak laguntzeko ikasi duela kontatu zidan, baina praktketan ez zela oso gustora egon. Ondorioz, beharbada, ondoren zer egin erabaki

aurretik, beste herrialde batera bizitzera joango dela urtebetez. «Horrela, bide batez, nire ingelesa maila hobetuko dut». Uste dut Irlandia edo horrelako zerbait aipatu zuela, baina ez dakit non dagoen hori. Gainera, niri ez zitzaidan iruditu gaizki egiten zuenik ingelesez, hala ere, ez nion ezer esan.

Une oro begietara begiratzen ninduela fijatu nintzen. Irribarrea aurpegira itsatsia zeukan eta, zenbaitetan, besoa ukitzen edo laztantzen zidan. Nik keinu hau izugarri gozo hartu nuen eta bere eskua sentitzearekin batera, bihotz taupaden erritmoa zein odolaren abiadura handitzen nabaritzen nuen.

Tabernara ailegatzen geundela, oina zulo batean sartu zuen Julenek eta tinko heldu behar izan nuen eror ez zedin. Nahi gabeko mugimendua izan zen, baina bere

gorputza nirera hurbildu nuen eta, segundu batez, bere arnasa nirearekin nahasten zela iruditu zitzaidan. Begirada altxatu gabe, belaunikatu nintzen bere orkatil uzkurtua aztertzeko, «barkatu, barkatu» errepikatzen nuen bitartean. Haren lagunak, aldiz, barre algaratan hasi ziren. «Ondo nago, Joandu. Ez da ezer izan. Eskerrik asko laguntzegatik!», xurxurlatu zidan nire mailara jaitsi eta aurpegi arduratua laztantzen zidala. Julenen lagunak jada tabernan zeuden eta Julen besarkatzeko gogo handia sentitu nuen. Aldiz, altxatu eta tabernaren atera abiatu nintzen.

Lokalaren barruan ilunasuna jabea zen. Ez zegoen jende gehiegirik. Egoera berezia zen, izan ere, *mzungu* gehiago zegoen beltz baino. Barraren alboan alkohola eskatzen ari ziren boluntario taldera hurbildu nintzen. «Coca-cola bat nahi al duzu, Joandu?», galdetu zidan izen arraroa daukan bolondres ilehori batek. Hitzik gabe, buruko

mugimendu labur batez, baietz erantzun nion. Zorabiatuta nengoen, ez bainago iluntasunez eta horrenbeste zarataz inguratuta egotera ohituta. Hortaz, hurbil zegoen sofa batean esertzea erabaki nuen, baina nire helburua lortu baino lehen, Julenen ahotsa entzun nuen. «Ondo al zaude, Joandu?», galdetu zidan lepoa eta bizkarra laztantzearekin batera. Baiezkoa egin nion buruarekin eta bakarrik eseri nintzen.

Nire testuinguru ezohikoa behatzeari ekin nion, coca-colari zurrupadak eman bitartean. Minutuak aurrera joan ahala, hobeto sentitzen hasi nintzen eta Julen dantzan ikusteaz gozatzeari ekin nion. Hain zirudien pozik...

Tamalez, ahoskaezinezko izeneko neskarekin dantzatzen hasi zen hurbil baino hurbilago eta izugarri jeloskor jarri nintzen. Ez dakit nondik atera nuen ausardia,

baina altxatu eta Julen eskutik hartu nuen. Neskari ez zitzaion axola izan, buelta eman baitzuen eta beste lagun batzuekin dantzatzen jarraitu zuen.

Juleni nire jokabidea dibertigarria egiten zitzaiola zirudien. Alabaina, barrezka, nire eskua tinko hartuta, biraka hasi zen. Zorabiatzear egongo zela pentsatzen nengoela, gelditu eta musu epel luzea eman zidan.

2017ko iralaren 2an, whatsapp elkarrizketa

Joandu: How are you darling?

Itziar: Hi! I am fine! And you?

Joandu: Well, I am not so good. Yesterday, they told me in school not to come back. They said that they can not have a teacher who behaves immorally.

Itziar: What happened??

Joandu: I don't really know.

Itziar: Joandu, tell me the truth, please.

Joandu: Well, when Julen was here... we kissed. That's all. I didn't know someone was watching. I am so sorry! I am a sinner...

Lehoia eta estralurtarra

(Oharra:

= Vietnamen boluntario lanak egiten ari den neska da

- Vietnameko umerzurtegia dagoen neskatila da)

(-) «Aaaaaaaah! Aaaaaaaaaaaaaaaah!

Aaaaaaaaaaaaaaaah» oihukatzea gustatzen zait. Negar ere, negar egitea oso gogoko dut. Horrela eztarriko bibrazioak ez ezik, malkoak nire masailetatik behera irristatzen senti ditzaket. Gainera, nire kaiolan altxatu, bi barrotetik heldu eta aurre-atzerako mugimendu erritmiko eta jarraituak egiten baditut, kriston jaia daukat sortua.

Normalean jaramon gutxi egiten didate, iskanbila handia sortzen badut ere, baina gaur egun berezia izan da. Ikuskizunaren erdian nengoela, bost pertsona ezezagun sartu dira gure logelan. Atetik sartu bezain laster, haien egonezin eta beldurra usaindu ditut. Beharbada ez daude

umeak kaiioletan ikustera ohituta edo, agian, horrenbeste buruhandirekin eta soinu bitxirekin harritu dira. Izan ere, nire logelakideek ere badituzte haien beharrak eta askotan eztarri-soinuak edo barreak botatzen dituzte.

Dena delakoa ere, nire jai-jarrera izugarriak lagundu ez duelakoan nago. Hurbiltzen joan dira eta zenbaitek nire kaiolan eskua sartu eta laztandu naute, ni isilarazi nahian, shhh xuxurlatzearekin batera. Joko hau oso dibertigarria iruditu zait eta mugimendu bortitzak gehitu dizkiot nire ikuskizunari, kaiola barruko koltxoneta mehearen gainean etzan naizen bitartean. Ostikadek dramatismo puntu gorena eman dutela uste dut. Artista hutsa naiz!

(=) 2019/07/10

Egunaren amaieran ailegatu gara eta, berandu bada ere, umezurtegia bisitatzea erabaki dugu. Lekua polita iruditu

zaigu kanpotik (zuhaitzak, patio handia...). Arratsaldea ilunduz joan da. Eta hodeiak zerua hartzen joan direla (ezohikoa Viet Namen), beldurrezko filmetan bezala, gure arimak ere ilundu dira. Geletan sartu garenean, amesgaiztoa hasi da.

Kaiotez eta kateez betetako lekua topatu dugu. Gehiegi mugitu ezin direnek gure aurpegia bilatu dute. Batzuk barrezka hasi dira, kontrolik gabeko eta testuinguruz kanpoko barreak. Beste batzuk begiak baino ez dituzte mugitu, arnas egiten jarraitzearekin nahikoa lan baitute. Oso gaixorik daude, hidrocefalia handia daukate. Hala ere, zalantzarik gabe, giroa gehien ilundu duena neskato itsu bat izan da. Neskatoa bera baino altuagoa zen kaiola batean sartuta ikusi dugu, oihuka, negarrez, ostikoka eta bortizki zein erritmikoki mugitzen.

Oihuak kanpotik entzun baditugu ere, barruan aurkitu ditugun barroteek eta mugimenduek ez dute lagundu. Egia esan behar badut, neskatoa laztantzeko eskua kaiolan sartu dudanean, eskua gal nezakeela bururatu zait, lehoi arriskutsu baten kaiola bailitzan.

Tristetuta joan gara hotelera. Deskonektatzeko beharra daukagu. Afari goxoak eta igerilekuan bainutxo batek lagunduko dute, akaso.

(-) Egunero usain eta zarata berdinak. Ez badigute gehiagotan pardela aldatzen, gogotsu kakatuko naiz. Nahiago dut nire kaka kiratsa usaindu, besteen txiza lurrina egun osoan zehar jasan baino. Zaratena erraz konpondu daiteke, baina gaur ez dut oihukatzeko gogorik. Gaur karaoke eguna da. Bai. Abeslari ona naiz. «La-la-la» aurrera eta atzera dantzatu bitartean. «La-la-la» lehenengo

eserita eta gero zutik. Hau hamar aldiz errepikatzen badut, ziur bazkalordua laster ailegatuko dela.

Sinesgaitza! Arratsaldean atzo etorritako neskato bat bueltatu da. Zer eta bigunak zein luzeak diren gauza arraro batzuk jarri dizkit eskuan; baita hanketatik, burutik, besoetatik eta aurpegitik pasa ere. Ai ama! Gaixoa ez dago burutik sano... Ze planetatik etorriko ote da? Sentsazioa, hala ere, egia esateko, gustatu zait. Hasieran, haserretzeko zorian egon naiz, baina azkenean jolas ederra bilakatu da.

Pena handia ematen dit barrote bigun eta goxo horiek ez izatea orain haiekin jolasteko.

(=) 2019/07/11

Gaur, berez, umerzurtegian gure lehenengo esku-hartze egun ofiziala izan denez gero, lan-talde osoarekin izan

dugu bilera goizean goiz. Han gai garrantzitsu ugari landu ditugu. Besteak beste, kaiolen erabilera gehiegizkoa eta langileen formakuntza beharrak. Sexualitatea, ezgaitasun kognitiboa eta nerabeen jarreraren kontrola izan dira haien kezka nagusiak.

Ondoren, bazkaldu aurretik, gelaz gela joan gara haur zein nerabeen datuak jasotzeko, aurrerago haien fitxak bete ahal izateko. Izenen idazketa arrotzari, zaintzaileekin komunikatzeko zailtasuna gehitu zaio. Ziur nago, adin bat baino gehiago gaizki jarri dugula. Ba al dakite haiek ziurtasunez zenbat urte dituzten umeek?

Bazkaldu eta gero, gizarte langileak zein fisioterapeutak lanpetuta zeudenez, neure kabuz ekintzaren bat egitea erabaki dut, denbora aprobetxatze aldera. Ekarri ditugun materialen artean bilatu, ghirlanda luze eta

koloretsuak hartu eta karioletako umeak estimulatzeraz joan naiz.

Buruz gora etzanda dauden eta ikusten dutenei girlandak barroteen artean lotu dizkiet, begira eta uki ditzaten. Bestalde, itsuei eta mugitu ezin direnei eskura eman dizkiet, baita gorputzean zehar masajetxoak eman ere. Atzo oihuka zegoen neskarekin (Thu izenekoa) dinamika egitea bereziki gustatu zait. Hain egon da gogotsu, zeinen kaiolan sartu naizen berarekin jolastera.

Kaiolaren barruan bost minutu baino gutxiago emango nituen. Ezin du imajinatu zer izan behar den mugitzen hasten zarenetik han egotea. Neskato hau paseotxo bat hartzeraz eramango dut aukera dudanean. Ziur.

(-) Gaur goizean, lasai-lasai etzanda eta bisitariez ahaztuta geundela, ekintza berezien neska estralurtarra bueltatu da, normalean asko etortzen ez diren etxeko langile batzuekin batera. Usain goxoko poltsatxo batzuk ekarri dituzte eta sudurrera hurbildu dizkigute, baita horiekin kili-kiliak egin ere.

Oraingoan, behintzat, jokaera arraroa badute ere, esaten digutena vietnamiteraz da. Langile batek, gainera, bat-batean kaiolatik atera nau eta nirekin eseri da gelako lurzoruan. Poltsatxoa elkarri pasatzera jolasten egon gara.

Dibertigarria izan da eta, ondoren, ez neukan kaiolara bueltatzeko gogorik. Joan direnean, negarrez hasi naiz. Haiekin joan nahi dut. Eguzkia zein airea hartu nahi ditut. Haiekin ere jolastu nahi dut.

(=) 2019/07/12

Gaurko eguna, zentroan, usaimen ekintzarekin hasi dugu eskailerapeko gelan. Ekintza egin baino lehen, interpretearen laguntzarekin gizarte langileei azaldu diet zergatik den garrantzitsua zentzumenak garatzeko ekintzak egitea. Horretarako erosi ditudan xaboi-pastillak erakutsi dizkiet. Pastillak mozterakoan birrintzen dira, baina usain atsegina daukate. Gizarte langile batek ideia bat izan du eta oihal batekin eta goma batzuekin etorri da. Horiekin hainbat usainetako poltsatxoak egin ditugu. Zein trebeak diren gauza hauetarako!!

Oso pozik egon naiz ekintza hau gizarte langileekin egiten. Izan ere, hasieran pixka bat izututa ematen bazuten ere, gero egiten nuena imitatzen hasi dira. Eta batek Thu kaiolatik atera eta harekin jolasten egon da!!! Horrelako jokabideak sustatu nahi ditut umezurtegiko langileen artean, gu joaten garenean ere, ezgaitasuna daukaten edota

gaixorik dauden pertsonak estimulazio saio anitz izan ditzaten.

(-) Gaurko eguna berezia izan da oso eta argi ikusi dut estralurtarrak burutik jota daudela.

Goiza nahiko normal joan da. Aspergarria bada ere, etzanda eman dut goiz osoa. Izan ere, logelakide bat inoiz baino zailtasun gehiago izaten ari da arnasteko eta lan hori egiteko lasaitasuna eskertuko duelakoan nago. Bihotzonekoa naiz, ez pentsa. Hala ere, bazkaldu aurretik gaixoen gelara eraman dute. Han medikuak gehiago lagundu ahalko dio, baina pena handia ematen dit. Oso gelakide dibertigarria izan da beti. Kriston oihu eta puzker lehiaketak egin izan ditugu askotan. Aurki bueltan izatea espero dut.

Bazkalordua ailegatu eta estralurtarrak etorri dira zaintzailearekin batera. Hitz egiten hasi dira eta etzanda, ahoa irekita bazkaltzen ematen utzi beharrean, horietako bat kaiola barruan eseri eta ni haren gorputza aulki-bizkarralde gisa erabilia esertzera derrigortu nau. Negarrez hasi naiz laster. Oso arraroa da eserita jatea, eztarriarekin irensteko indarra egin behar dut eta. Ez zait gustatu. Haserre nago haiekin.

Aurrekoa gutxi balitz, arratsaldean ekintza arraroen txorrea etorri da. Gelako ume guztiak agurtu ditu lehenengo. Goxo hitz egiten digu eta aurpegia zein besoak laztantzen dizkigu. Ez al da ohartzen hitz bat bera ere ez diogula ulertzen?

Ondoren, niregana hurbildu da eta eskuetatik helduta kaiolatik atera nau. Poliki-poliki gela zeharkatu eta irekita

zegoen sarrerara ailegatu gara. Aspaldi ez nintzen ateratzen gelatik, izan ere, orain dela bi aste izan nuen nire azken fisio saioa. Nire harridurarako, patiora atera beharrean, ezkerraldeko eskaileretatik gora joan gara. Ez naiz inoiz hemendik etorri eta nire bizitza osoan zehar gehien jota bizpahiru eskailera igoko nituen jarraian. Hauek asko izan dira, berriz, eta jolas baten moduan hartu dut. Jolasarekin hasteko, estralurtarrak oinak heldu dizkit, mailak nola igo behar nituen irakasteko. Eta gero, nire aurrean jarri da, eskuetatik tinko helduz. Beharbada, eroriko nintzelaren beldur zen. Geroz eta jatorragoa iruditzen zait tentel hau.

Gora ailegatu eta beheko solairuan entzun ezin daitezkeen ahots ugari entzun ditut. Haurtxoak dira. Ni horietako bat izan nintzen, bost urte bete eta kaiolan sartu nindutenera arte. Gehiegi mugitzen nintzelakoan nago.

(=) 2019/07/15

Goiza azkar pasa zait nerabeekin ipuin bat irakurtzen. Ondoren, fisioak lagundu ditut ikusteko nola irakasten zieten zantzaileei ezgaitasuna duten umeei bertikalki jaten. Oso ondo azaldu diete adibide praktiko baten bidez, baina gure laguna Thuk ez du oso ondo hartu aldaketa eta negar-zotinka ibili da.

Tamalgarrria da benetan horrenbeste aukera dituen pertsona bat gatibu eta autonomiarik gabe uztea. Hori dela eta, arratsaldean bakarrik joan eta Thu paseatzera atera dut. Hasieran nire erabakiaz pixka bat izutu naiz, izan ere, inori ezer esan gabe joan eta neskatoa atera dut eta, gainera, goiko pisura igo dut haur txikiekin pixka bat mugi zedin. Behean ez zegoen zaintzailerik Thu eraman dudanean, baina goian hiru zeuden eta irrifarre egin didate, gure

komunikazio ezintasuna estali nahian. Haurtxoek hasieran ez zuten ezer ulertzen eta pixka bat beldurtu direlakoan nago, baina gero Thu ukitu dute eta harekin jolastu dira. Zeukaten aurreiritzia pixka bat apurtu dela uste dut.

Nekatuta nago esateaz hobe dela ume hauek zauri bat egitea, kaiolan itxita 24/7 egotea baino, baina argi dago hemengo ikuspuntua beste bat dela. Itsua izateagatik soilik dago Thu kaiola batean gatibu. Gainera, kaiolan emandako ordu luzeetan zehar ez daukate inongo estimulaziorik, ezta jostailu bat bere ere ez!

2019/07/20

Jaieguna da, gure azken eguna Viet Nameko umezurtegi honetan. Joan aurretik, ordu pare bateko ospakizuna egin nahi dugu eta hemen bizi diren pertsona guztiak edo, ezinezkoa bada, gehienak batzea nahiko genuke. Hau zaila

izango da. Nola argudiatu karioletan gatibu dauden pertsonak patioan aske egotea nahi dugula?

Onea ume horiek zuzenean guk geuk ateratzea izango da, baimenik eskatu gabe. (-) Estralurtar eroa etorri da!! Kaiola ireki eta presaka atera nau. Nora goaz?? Normalean, gehiago hitz egiten dit eta motelago doa, baina gaur lan handia daukala dirudi. (=) Azkar aterako ditugu lagunak, langileek ezer esan baino lehen. (-) Korrika ibiltzea gustatzen zait. Jolas berri bat. Lasterketa bat egiten egongo gara, agian. Irabaziko dugu, zoro hori! Ez larritu!!

(=) Behin gaixorik ez dauden erabiltzaile guztiak kanpoan, estera batean zutik edo etzanda daudela eta zentroko langileen sinesgaitasun begiradak jaso ostean, jaiarekin has gaitzke!! (-) Amatxo maitea! Ze demontre da hau? Kriston zarata dago eta inoiz entzun ez ditudan ahots

anitz dago nire inguruan. Lurrean eseri naute. Eskuak edozein norabidean pixka bat luzatzen badituz, beste gorputz batzuk uki ditzaket! Nortzuk dira pertsona horiek? Ez dira nire gelakideak, edo bai? Egia esateko, horiek ere ez dituz inoiz ukitu.

Emakume batek hamar minutu daramatza abesten eta nik sufrimendu hau jasaten. Argi dut nik askoz hobeto egingo nukeela, baina niri ez didate mikrofonorik hurbildu! Edalontzi bat jarri didate ahoan. Eta mmmmmmmmm!!!! Zein goxoa dagoen ematen ari zaizkidan estralurtarren edari misteriotsu hau... Baina oso gutxi eman didate eta edalontzia kendu didate hurrengoari emateko. Edari magikoa berreskuratzen saiatu naiz, baina ezinezkoa izan da. Haserretu naiz. Banoa hemendik! (=) Harrigarria da zenbat gustatzen zaien karaokea vietnamdarrei. Mikrofonoa hartu eta abesti bat bestearen atzetik abestu nahi dute. Nik

ume, nerabe zein adinduekin dantzatzeari ekin diot. Bikain pasatzen ari gara eta ikusle-talde animatua daukagu txaloka eta algaraka. Laranja zaporeko tang nazkagarria banatzen ere lagundu dut. Sinesgaitza da zein gustoko duten. Thuk, adibidez, edalontzi osoa edan nahi zuen eta nabarmen haserretu da kendu diodanean.

(-) Eskuak lurretik altxatu gabe, jendartetik aldentzen joan naiz. Lehenengo lur biguna zeharkatu dut. Hortik mugitzen ari nintzela, esku batzuk ukitzen ari zaizkidala iruditu zait. Baina, ukitzailea harrapatu dudanean, pertsona bat ez zela konturatu naiz. Lurretik ateratzen zen barrote fina eta malgua zen. Azkenik, lur zurrunera bueltatu eta beste barrote batzuekin (oraingoan normalak) topo egin dut. (=)Ai ama! Thuk ihes egin du!! Ez dago Bu eta Mai artean. Begiradarekin patio osoa zeharkatu dut. Han dago! Irteerako harresira heldu eta zutik

jartzen ari da. Haraino ailegatzeko lorategiaren erditik pasatuko zen. Zein abenturazalea den!

Korrika batean, baina lasaitasuna erakutsi nahian (ez dut hemengo langileen «esan genizuen» aurpegia jaso nahi), Thurengana hurbiltzen naiz. Ondo dago. Atzazkalak lurrez zikindu ditu, baina besterik ez. Altxatzen lagundu dut eta aurpegia laztandu diot. Jai-lekuko musika urrun entzuten da hemendik eta lasaitasuna jabe da. «Bikain egin duzu, Thu. Horrela jarraitu. Bilatu zure askatasuna», xuxurlatzen diot, malko bat masaila zeharkatzen nabaritzen dudana bitartean. (-) Badago nirekin berriro estralurtar astuna. Obsesionatu da nirekin. Beharbada, maiteminduko zen. Eskuetatik heldu eta bi-hanketan jartzen laguntzen nau. Beno, egia esateko ez da horren txarra bera etorri izana. Nola usaintzen duen gustatzen zait. Gozo hitz egiten dit eta aurpegia ukitzen. Agurtzen ari dela uste dut. Orro

egiten dut. Besarkatzen dut. Zaindu zaitetz eta bidaia ona izan espazioan zehar.

Zintzilik

Zaharra zen edo hori iruditzen zitzaidan niri, behintzat. Igandeak gorroto nituen garai hartan. Igandeetan etortzen zen etxera bazkaltzera. Nire amaren neba zen. Da. Nire osaba. Berez.

Behin baino gehiagotan gertatu zen. Askotan, agian. Ezin dut gogoratu. Ezin dut ahaztu. Baina jakin badakit noiz gertatu zen. Noiz gelditu nintzen lehenengo aldiz haurdun. *Haren arnas kutsatua nire masailaren kontra jotzen du. Horman zintzilik dagoen gurutzea begiratzen dut nik. Nire gorputzetik ihes egiten saiatu arren, bere azazkal zikinak sentitzen ditut nire azala urratzen hankak gehiago ireki nahian. Nire bularren kontra bere ileak eta izerdi tantak.* Amaitutakoan, prakak igo zituen. Zakila gorde zuen. Eta han utzi ninduen. Betiko legez. Baina, nik banekien hau berezia zela.

Hamasei urterekin haurdun geratzea ez da berezia gure auzoan. Hala ere, emagaldu abizena hartu nuen, beste askok bezala. Haurdunaldia bertan behera uzteko aukera ez zidaten luzatu. Nik neuk ere ez nuen horretan pentsatu ere egin. Beste egiteko modurik ez nuen ezagutzen. Emakumeok seme-alabak izaten ditugu. Amak ez zidan ezer galdetu. Ni egin ninduen arduradun bakarra. Inork ez zidan ezer galdetu. Ezer galdetzeko ez balego lez. Ohera joan eta hurrengo egunean haurdun esnatu izan banintz bezala.

Umea jaio zen eta ni etxetik ihes egiteko gogo izugarriekin nengoen. Etxe aurretik pasatu zen lehenengo gizonarekin joan izana aurpegiratu zidaten askok. Urdanga nire ezizenari indarra emateak harrotu ninduen. Edo hori erakutsi nahi izan nuen behintzat, nire amaren onespena, zoroen pare, bilatzen nuen bitartean.

Amaren oniritzia izan ala ez, zorte handikoa izan naiz. Beste seme bat izan nuen eta familia bat osatu dugu. Senarrak ez nau jotzen. Ezta edaten duenean ere. Eskatu daiteke besterik?

Diruz ez gabiltza soberan, aldiz. Hareazko lurra daukagu etxe barruan eta ur-bidoia nahi baino gehiagotan amaitzen zaigu. Egoera latza denez gero, azkenaldian presio handia jasotzen ari naiz etxera dirua ekar dezadan. Aurreko batean, nire bigarren semearen aitak hurrengo esan zidan: «Zergatik ez zara zure osabarekin mintzatzen? Lana dauka eta lagun gaitzake. Zor digu».

Zor digula. Zor digula esan du. Ondo entzun dut. Badirudi egin zidana ordaindu daitekeela eta, gainera, berak ere kobratu dezakeela. Badakit dirua behar dugula, baina zer esango du nire amak kontu hauekin baldin banoa? Ez dut egin nahi. Hala ere, ez dut ezer erantzun.

«Dirua behar dugu, maitia». Gorritzen hasia naiz eta nabaritu du. «Azken finean, bere aita da eta ardura dauka edo izan beharko luke behintzat. Ez ni gaizki ulertu. Asko maite dut Antonio txikia, baina odola horren guztiaren gaintetik dago». Izugarri gustatuko litzaidake, film estatubatuarretan bezala, korrika batean altxatu eta komun zuri eta eder batera botaka egitera joatea. Baina gurean ez dago horrelakorik eta daukagun zuloan botaka eginez gero, damutuko zait.

Altxatu eta sukaldatzeari ekin diot. Egun txarrenetan ere umeei eman behar zaie jaten, ala? Dauzkagun bi tipula eta lau azenarioak zuritzen eta mozten ditudan bitartean hurrengo egoera irudikatzen dut:

Laurok amaren, orain amonaren, etxera goaz. Osaba han dago. Harro, burua tente. Ama sorbaldatik

heltzen. Horrelako maitasun keinuak ez dira arruntak. Zeozer susmatzen duela dirudi. Baina ez zaio urduritasuna inondik inora nabaritzen. Ni, aldiz, ezin zutik mantendu nabil.

Agur gehiegirik gabe, konturatzerako mahai inguruan gaude. Inoiz aberatsa ez bada izan ere, amaren etxeak solairu-lauza dauka eta mahai gainean lauzpabost jaki jartzen ditu. Hurrek azkar jan eta jolasten hasten dira. Kanpora bidaltzen du nire arima ezeren gaintetik urratu zuen gizonak. «Oihukatu eta korrika egiteko kanpora joan, animaliak!». «Animali horietako bat zure indarkeriaren ondorio da, nazkagarri hori!», oihukatu nahiko nioke. Baina ez dut ezer esaten. Ez dut begirada altxatu ere ez egiten.

Ama hitz egiten hasten da. Niri hitz egiten dit.
«Badakizu zein garrantzitsua izan den zure osaba familia honetarako. Zu joan zinenean eta bakarrik utzi ninduzunean, nire alboan egon zen. Laguntzen». Ezin dut sinetsi. Benetan? Zintzilik sentitzen naiz. Bi aukera ditut. Zoro pare oihuka eta biraoka hasi eta amari kontatu bere neba maiteak egindakoa ala berriro begirada jaitsi eta isiltzea.

Ametsa izanda ere, ez dut zaratarik ateratzen. Nire mundu paraleloan ere ez naiz aske. Senarra atzetik hurbiltzen zait eta ipurdia ukitzen dit. Izutzen naiz. Oihu laburra botatzen dut. Harrizko horman zintzilik dagoen gurutzea lurrera erortzen da. Igandea da. Egun ere igandek gorroto ditut.

Mundua guzti-guztiok bizitzeko eskubidea izan beharko genukeelako eta bizimodu ugari daudelako, *Bizimundua* liburuko ipuinak Zeinu Hizkuntzaz disfrutatzeko bideoak eta braille lerroa erabilia irakurtzeko aukera izango dituzue hurrengo helbide elektronikoetan:

labur.eus/ikusimundua

labur.eus/ukitumundua

ZeinuKaxako Ainhoa eta Cristina zein IBT-CRI Araba-ren laguntza eta elkarlana ezinbestekoa izan da *Bizimundua* denontzako proiektua izan dadin. Eskerrik asko bihotzez!

Eskerrak orain dela hamahiru urte gehiegi edan eta nire laguna
musukatu nuela,
orain badaukat zalantza, beldur eta egonezin guztiak norekin
elkarbanatu.

Eskerrik asko lagunei
bururatzen zaizkidan idei zoro guztiak bete ahal ditudala sinesteagatik
eta egoteagatik, beti prest egoteagatik.

Gurasoei
harro egoteagatik,
ni maitatzeagatik,
kezkatzeagatik
eta eredugarriak izateagatik, gehienetan.

Mireni, ahizpari,
nire zalantza eta kezka guztiak jasotzeagatik,
testuak irakurtzeagatik,
zuzentzeagatik
eta, batez ere, jolasteagatik.

Zuri
Bizimundua erosi edo maileguz hartzeagatik
eta, bereziki, irakurtzeagatik.